



ARGIA

Amaia Merino

'Non dago Mikel?'
filmaren egilea

**"Nola espero
zuten guk
horrelako
gezurra
sinestea?"**

12-16. orriak

#2.727 | 2021 / 04 / 04 | 3,90 €



**Taiwanen ura falta
delako Europako
industria geldirik?**

10 | NET HURBIL



**Eskola
dekolonizatzeko
gakoak**

22 | HEZKUNTZA



**Ekuador oraindik
kolonialismoan
kateatuta**

32 | NAZIOARTEA

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

- 17 | DAVID BOU
- 18 | MAIALEN BERAATEGI
- 19 | BEÑAT MUGURUZA
- 19 | UXUE APAOLAZA
- 20 | GASTEIZKOAK
- 21 | GOTZON BARANDIARAN

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

- 40 | DENBORAREN MAKINA
- 41 | ARGIA KOMUNITATEA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: SARA ETXEBESTE ALVAREZ
- 58 | BERANDUEGI



CONCETTA PROBANZA

22 | ESKOLA ZURIA NOLA DESERAIRKI

STEILAS sindikatuak antolatutako mahai-inguruko edukiak ekarri ditu erreportaje honetara Mikel Garciak. Besteak beste, curriculumean zuriak ez diren jakintzak gehitzea aldarrikatu dute, arrazializatutako ikasleen auto-estimua hobetzeko eta eskola guztiena dela sentitzeko.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 | NET HURBIL

Gure auto fabrika gelditu behar, Covidagatik eta Taiwanen lehortea dutelako

Pello Zubiria

12 | IJENDEAK | AMAIA MERINO

“Non dago mikel?” filmak lortzen du ikuslearen enpatia torturatuekin”

Reyes Ilintxeta

28 | GIZARTEA | KANARIA HANDIA

Porlanak irentsitako uhartean, auzoetatik birjabetza ereiten

Xabat Petrikorena

33 | NAZIOARTEA

Ekuador XXI. mendean ere kolonialismoaren atzaparretan

Juan Gorostidi

37 | GIZARTEA

Lau gasteiztar, nork bere hizkuntzan ere bizi nahi

Miel A. Elustondo

44 | KULTURA | IKUSPUNTU JAIALDIA

Ez diren gauzak ere badira

Ainhua Gutiérrez

46 | KULTURA

Tripakatar

Jone Alaitz Uriarte

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaita Taldeko partaidea

Lehendakaria

Onintza Irureta

Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Elizagirre, Gorka Bereziartua, Ixone Arana, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Mikel Garcia, Oihane Arretxea, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia, Eneko Arzuaga

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Sorraluze, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaita taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:

aniza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egileta aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

A man in a white lab coat and a light blue face mask is seen from the back, holding a smartphone to take a photograph of a framed artwork. The artwork is a black and white charcoal-style drawing of a young boy in denim overalls, looking upwards and to the right. The scene is set in a gallery or museum with white walls.

Aldarrikapenak enkantean

Banksy bere marka hautsi du beste behin. Pandemiaren lehen olatuan Ingalaterrako ospitale baten sarreran utzi zuen lana 19.422.522 euroren truke saldu dute Londresen, Christie's multinazionalako enkante etxean. Dirutza ongintzako erakundeei emango dietela zabaldu dute. Banksyren lanak aldiro-aldiro eztabaida zaharra berpizten du: kaleko artea eta merkatuaren logika eta kontrolaren arteko harreman gaiztoa. Sarri kritikatzeko duen boterearen merkantilismo eta elitismoaren ikur diren museoetan ere sartzen dira haren lan ezagunak. Batzuek saldukeria leporatzen diote grafitia instituzionalizatzen uzteagatik eta beste batzuek diote eremu horietan ere sartu izanak laguntzen duela gizarte honen izaera absurdua eta zorua azalarazten.



University Hospital Southampton
NHS Foundation Trust

Thank you
for your space



Coronavirus
infection

#BULTZAEUSKALTEGIAK



EDOZEIN HIZKUNTZAREN
NORMALIZAZIO PROZESUAK
HIZTUN BERRIAK BEHAR DITU,
ETA BERAZ, EUSKARAK ERE BAI.
HELDUEN EUSKALDUNTZEA
ZUTABE ESTRATEGIKOA
DA EZAGUTZAREN
UNIBERTSALIZAZIOAN, ETA
ONDORIOZ, EUSKARAREN
NORMALIZAZIOAN

@AEK_eus @paulbilbao



EUSKALTEGIEN FUNTZIOA
EZINBESTEKO DA. EUSKARAZ
IKASTEKO DOAKOTASUNAREN
BORROKAN, ALIATU IZANGO
GAITUZUE EUSKAL HERRIAN
EUSKARAZEKOAK

@EHEbizi



SORTZENEK EUSKARAREN
ALDEKO HAUTUA ESKATZEN
DIO JENDARTE OSOARI,
BEREZIKI FAMILIEI, GURETZAT
HIZKUNTZAREN HAUTUA
FUNTSEZKO ETA OINARRIZKO
IRIZPIDEA BAITA. AUKERA EMAN
NAHI DIEGU EUSKARATIK,
ELEANIZTUN IZAN DAITEZEN.
EUSKARAREN LURRETAN,
EUSKAL ESKOLA, EUSKARA ETA
HERRIA, EUSKARA ETA AUZOAK

@AEK_eus
@SortzenElkartea



AURTENGO LEKUKOA,
MINGAINEAN!

@Txatxilipurdi



1.717 pertsona hil ziren iaz, Espainiako Estatuan sartu nahian

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Iaz 1.717 pertsona hil ziren, Espainiako Estatuko lurretan sartu nahian, inoiz erregistratu den kopururik handiena. Espainiako Gobernuak eta Europar Batasunak dituzten “migrazio politika kriminalak” dira heriotza horien erantzule, giza eskubideen aldeko Andaluziako elkartearen esanetan. Espainiako koalizio gobernuaren akordioan egoera aldatzeko borondatea agertu zuten arren, ez dutela ezer egin salatu du elkarteak.

Ohiko dinamika errepikatzen dela kritikatu du giza eskubideen aldeko elkarteak: orain Kanariar Uharteetara migratzaile ugari iristen ari dira “eta Espainiako Gobernuaren erantzuna errepresioa izaten ari da: milaka lagun baldintza tamalgarrietan itxita, giza eskubideak errespetatuko diren bermerik gabe; milaka lagun kale gorrian lotan, laguntza legalik gabe, gurasoak seme-alabengandik bananduta...”. Berriki, Matitik pateran Kanariar Uharteetara bidaiatu duen 2 urteko neskato bat hil da.

GOBERNU BERRIAK LEHENGO LEPOTIK BURUA

Elkarteko kideek kritikatu dute Alderdi Popularraren errepresio bera errepikatzen ari dela PSOE-Podemos koalizio gobernupean. “Gai honekiko sentiberagoak ziruditen, baina migratzaileei bide legal eta ziurrak bermatzeko proiektuak baztertu ditu, nahiz eta hasierako gobernu-akordioan agertzen ziren. Gaur egungo legediarekin, lortzen duten gauza bakarra da pertsonekin trafikatzeko duten mafiak areagotzea”, salatu dute.

BALIABIDEAK, KANPORATZERA BIDERATUAK

Baliabideak bideratu ordez migratzaileen harrerara edo bidaia modu seguruan egin dezaten, migrazio politikarako diren baliabide guztiek pertsonen sarrera mugatzea edo pertsona horiek kanporatzea dute helburu, elkarteak gogoratu duenez. Baliabide horien artean aipatu dituzte Kanpo Bijilantziarako Sistema Integratua, migratzaileen espetxe modukoak bihurtu diren CIEak, Andaluziako kostaldean dauden harresiak, edota mugak zaintzera eta patera eta itsasontziak kontrolatzera dedikatzen den Frontex agentzia.

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Nekeaz



ARITZ GALARRAGA

24 orduko guardiak egiten dituen erizain prekarioaren nekadura ulergarria da, noski. Hoteletako gelak bata bestearen atzetik garbitzen dituen kelly esplotatuaren akidura ere bai, nola ez. Egun erdiz pedalei eragitera behartuta dagoen rider autonomoaren unadura eztaba daezina da, bistan da. Baina eta zer gertatzen da egun osoa eserita eman, adibidez ordenagailu aurrean, bulego batean, egunaren atzetik eguna, eta ohera leher-tuta joan, baiki, baina ohetik altxa ere pott eginda, gogorik gabe, ezertarako gauza ez izanik bizi denarekin? Nekatzeko ezer egin ez, ustez, eta nekatuta? Chantal Akermanen narrazioko emakumeak dio: "Akitutako pertsona bat naiz", eta ez da erizain, ez kelly, ez rider ere. Bizitzaz nekatuta dagoen beste pertsona bat gehiago da, besterik ez.

Nekea betidanik egon da gure artean, ados, gizakiaren mui-nean dagoen zera bat da. Hain zuzen, gizakiaren mugetarik bat litzateke, den bezala gaixotasuna, zahardadea, heriotza. Baina nekearen pertzepzioa ez da izan garai guztietan berdina. Berriki arte nekea lotzen bazen lan fisikoarekin, azken garaiotan neurri-gabe ugaritu da bestelako neke bat, isilagoa, ikusezinagoa. Lane-tik etxera zabaldu da, aisialditik eguneroko jokabideetara, gure ahultasun, zaurgarritasunak agerian utziz. Munduan egoteko manera bat bilakatzeraino. Neke ikaragarria da bizi dugun ga-raiaren ezaugarria. Gabeziak, oztopoak, porrotak, inoiz ez dugu gaur bezainbeste motibo izan nekatutik egoteko. Georges Viga-rello: gizajendearen autonomiak gora egin duen neurri berean egin du gora nekeak, aukeratu ahal izateak, edo aukeratu ahal izatearen ametsak, ahitzen gaitu; pixka bat beste Georges baten, Perek, *Gauzak* eleberriko bikoteari gertatzen zaiona, bizi nahiko luketenaren eta bizi duten egunerokoaren arteko kontraesanak abailtzen dituela. Norbera izateak nekatzen gaitu. Esan dezagun argi: nekez soportatzen dugu geure burua. Horrekin bizitzen ikasi behar dugu, ordea. Gure mugekin negoziatzen. Labur, ne-kea onartzen. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

ABERRI EGUNA REN BEZPERAN... ...UZTARRI EGUNA!



"ALOKAIRUA ARAUTZEA EZINBESTEAN EMAN BEHARREKO PAUSOA DA"

ERNAI GAZTE ANTOLAKUNDEA

Etxebizitza lortzeko eta ondorioz gazteek emantzipatzeko duten arazoa mahai gainean jarri du Ernaik. Europan batez beste 26 urterekin emantzipatzen dira; Hego Euskal Herrian aldiz, 30 urterekin. Neurri zehatzak proposatu dituzte. Hala nola, etxe kaleratzerik ez egitea, alokairu soziala eta etxebizitza publikoa bultzatzea, okupazioa despenalizatzea... eta lehentasunezko jo dute Euskal Herriko administrazioek alokairua arautzea. **2021/03/23**



Batzuk zukutu, besteak gizentzeko



JUAN MARI ARREGI

Batzuek, euren xalotasunean, uste dute kapitalismoa Europar arautu daitekeela Europako Parlamentuaren bidez. *El País* egunkari espainiarreko zutabegile batek, parlamentu hori buruan, zera zioen: “Kapitalismoa menderaezina da arautzeko borondate politikorik ez badago”. Baina nire ustez ez dago kapitalismoa arautuko duenik, eta egunez egun ikusten dugu. Hemen hiru adibide, prentsako hiru albistiren bidez.

Bat. Goldman Sachs AEBetako inbertsio bankuko langileek astean 95 orduko lanaldia dute; lankide batek “astean 80 orduko muga ez gainditzea eta ostiraleko 21:00etatik igande goizera arteko atsedena errespetatzea” eskatu du. Horrela, banku horretan sartzea onartu dute, “etorkizuneko soldata zorabiagarria izango delako”, dio kazetariak.

Bi. Bilboko lan-arloko epaitegi batek 285 *rider*-ek Glovo zerbitzu enpresaren praktiken aurka jarritako salaketa du aztergai. Enpresa honen lan ereduaren prekaritate izugarrian dago oinarriturik, lan-puntuazioa hartzen du kontuan, eta, horrela, langileak bere baldintza eskasak muturrera eramatera bultzatzen ditu –atsedenik ez hartzea kasu–, kontratazioen gorpulean jarraitzeko.

Hiru. Telefonikak, bestalde, bere Batzar Orokorrari proposatuko dio enpresako 809 zuzendariei 200 milioi euroko saria ematea, hiru ziklotan banatuta bost urteren buruan. Presidentek, lortzen badu neurri hori onartzea, 5,6 milioi euro gehiago jasoko ditu lehen zikloan; kontseilari delegatuak, 4,68 milioi, eta horrela gainerako zuzendariak. Horretarako helburu batzuk lortu beharko dituzte baina: kuxako akzioen kotizazioa eta kaxa fluxua handitzea, eta isuri kutsatzaileak ezabatzea.

Hori da kapitalismo huts eta gogorra: langileak zukutzea eta bere kudeatzaileen bankuetako kontuak gizentzea. ●



Pandemiarekin aberasten

LANDER ARBELAITS MITXELENA

Zenbat aldiz ari dira gure agintariak, herritarron diruarekin, gauza beragatik ordaintzen? COVID-19aren aurkako txertoen aferan, gutxienez hirutan. Lehenik, txertoa lortzeko ikerketa egiteko 7.500 milioi euro eman zizkieten farmazeutikei, Airfinity aholkularitza enpresaren arabera. Ondoren, korporazio horiek erakunde publiko berei txerto dosiak saltzen dizkiete (dizkigute) merkatuko prezioetan. AstraZeneca 4 eta 8 dolar artean kobratzen ari da dosiko, Pfizer 19 dolar eta Moderna 37, batzuk aipatzearren, BBCn irakur daitekeenez. Beraiei zenbat kostatzen zaien ez dakigu ordea. Hirugarrenik, txerto horien balizko bestelako ondorioengatik herritarrei kalte-ordainak ematea erakunde publikoek hartu dute askotan beren gain. Europako Batzordeak hori sinatu zuen CureVac enpresarekin, urtarrean jakin zenez. Horri gehitu enpresa horietako askori ematen zaizkien hobari fiskalak beren laborategi eta fabrikak Europar Batasunean edukitzeagatik. Eskandalu galanta da, bai; badakigu, kapitalismoa du izena.

Enpresen atzean dirutzak poltsikoratzen ari diren horiek ere badituzte izen-abizenak. Esate baterako, Pfizer enpresaren txertoen eraginkortasuna iragarri zuten egunean, enpresa horretako zuzendari Albert Bourla munduko pertsonarik aberatsenen zerrendan sartu zen. Gainera, kaxatik pasa zen bere akzioen %60a saldu eta 4,76 milioi euro poltxikoratuta. Ez zen hori egin zuen bakarra izan. Txerto horien ekoizpenean murgilduta dauden beste enpresetan ere izugarri aberasten ari dira batzuk, izan akzioen prezioak biderkatu direlako edo urte amaierako dibiduengatik. Adibidez, Pfizer enpresak 16.000 milioi euroko fakturazioa eginez itxiko du urtea, eta Modernak ia 15.000 milioikoa, Morgan Stanley bankuaren arabera. Ikusi dugunez, enpresa hauek hain azkar merkaturatutako txerto horiek nagusiki diru publiko finantzatutako ikerketaren ondorio dira.

Sendatzeko eskubidea. Horrela du izena Europa mailan abiatu duten azken ekimen herritarrak. Besteren artean Europako Batzordeari eskatzen diote: Kostuetan eta kontratuaren gardentasuna, osasuna eskubide gisa lehenestea negozioaren aurretik, industria honen kontrol publikoa eta farmazeutikaren diru-irabazien debekua. Kontua zail dagoela dirudi. Europa osoko herritarrak konfinatzeko agindu zuten gobernuek ez dute medikamentu eta txertoen patenteen jabetza publikoa aldarrikatu nahi farmazeutikaren aurrean, nahiz eta arazoa konpontzeko ezinbestekotzat jotzen den. Ez dezagun ahaztu pandemia global honek, aldizkari hau ixteko orduan jada 2,77 milioi pertsonaren heriotza eragin duela.

Hasi beharko dugu farmazia industria publiko baten aldeko lanean ere. Kubak erakusten digu posible dela. ●



OBUS BAT LEHERRARAZI DUTE GALDAKAON

GALDAKAO. Martxoaren 23 goizean, obra bateko langileek 40 zentimetroko obus bat aurkitu zuten Galdakaoko Txomin Egileor kalean, Ibaizabal ibaitik gertu. Leherkari hau 36ko gerrakoa zela uste da eta 15,5 kilo pisatzen zituen. Ertzaintzak lehergailuak desaktibatze protokoloa aktibatu eta zartarazi zuen.

ENERGIA BURUJABETZA

74

udalerrri katalanek Energia Publikoaren Aldeko Udalen eta Erakundearen AMEP

Elkartea sortu dute. Argindarraren banaketa-sarea arautzea eta udaletatik kudeaketa publikoa lantzea da helburua. Gaur egun, Endesak kontrolatzen du praktikan Kataluniako argindarraren banaketaren %95, eta energia burujabetza berreskuratu nahi dute udalerrri hauek.



Foam balak Tubacexeko grebalarien aurka

ARGIA

Greban diren Tubacex enpresako langileak Amurrioko lantegiaren aurrean elkartu ziren martxoaren 25ean ere; enpresako sarrera itxi zuten hainbat orduz suzko barrikadekin. Ertzaintza foam balekin oldartu zen haien kontra eta eraso horren ondorioz hainbat pertsona zauritu zituzten.

KARGA

Suzko barrikada zela-eta suhiltzailak agertu zirenean, langileek txalo zaparrada artean hartu zituzten. Aldiz, Ertzaintzarekin tentsio une nabarmenak izan ziren eta greban ari ez diren langileen eta zuzendaritzaren autobusa enpresan sartu eta gero, kargatu egin zuen poliziak, hainbat langile zaurituz.

KALERATZEAK

Tubacexeko zuzendaritzak 95 lagun kaleratzeko prozesua abian jarri du, beste 22k diru ordainekin utziko dute enpresa euren kabuz eta 13 aurre-erretiro ere egongo dira. Denera 600 lagunek egiten dute lan talde osoan, baina Arabako plantak izango dira kaleratzeekin kaltetuenak. Hodiak egiten dituen Tubacex-ek, salmenten gutxitzeari egotzi dio taldea %20 murrizteko beharra. Sindikatuak baina, kaleratze horien kontra agertu dira argi eta garbi, eta langileek tinko eutsi diete mobilizazioei.



INDEPENDENTZIA. Eskoziaren independentziari buruzko bigarren erreferenduma egiteko lege proiektua aurkeztu du Eskoziako Gobernuak. Egun berean, independentismoari garaipena eman dio inkesta batek. Pandemiaren krisia gainditu arte ez da erreferendumik egingo.



TXIRRINDULARITZA. Bilbotik abiatuko da Frantziako Tour ospetsua 2023an. Bizkai-ko hiriburua "mapan kokatzea" eta ekitaldiak izango duen "inpaktu ekonomikoa", horiek agintariek erabili ohi dituzten argudioak, ertz ugaritatik aztertu eta eztabaidan jarri daitezkeenak.



ETXEGABEAK. 23 urteko etxerik gabeko gizon bat zendu da Bilbon, martxoaren 12an. Gauak aterpetxean eta egunak kalean igarotzen zituen. Aurten Euskal Herrian hildako bigarren etxegabea da. Urtarrilean, 56 urteko gizonezko bat hil zen Hendaian.

GURE AUTO FABRIKA GELDITU BEHAR DUGU, COVIDAGATIK ETA TAIWANEN LEHORTEA DAUKATELAKO

Urtarril amaieran Gasteizko Mercedes konpainiako zuzendaritza langileen ordezkariekin bildu zen ohartarazteko fabrikako ekoizpen-katea eten beharko zutela autoentzako hainbat pieza elektroniko eskuratu ezinik zebiltzalako, zehazki txip elektronikoak. Bi hilabete beranduago, martxoaren 27an produkzioa eten behar izan du. Antzeko egoeran aurkitu dira mundu osoan Volkswagen, Ford, Nissan, Toyota, Honda eta gainerako gehienak.

 PELLO ZUBIRIA KAMINO

Airbag-ak, haizetako-garbigailuak, motorraren kudeaketa elektronikoa, edozein kotxek gaur daraman barne-ordenagailua, aparkatzeko sentsoreak, leihoetako beira-jasogailua... denak daramatzate mikrotxipak, sarritan 100 baino gehiago. Sofistikatuak bezain merkeak... munduaren beste muturretik ekarri beharrekoak.

Erdieroale elektronikook, prefosta, teknologia berrizko tramankulu guztien barunbeetan ere badaude, eta horien eskasiaren zantzuak azaldu ziren 2020an: Applek bere azken iPhone berria epeka merkaturatu behar izan zuen, Xbox eta PlayStation kontsola berrien zain zeuden guztiak ezin ase... Samsung eta Qualcomm bezalako txip hornitzaileek aurreratu zuten enkarguak osatu ezinik ari zirela. Urte amaierarako txip idortea automoziora hedatua zen eta prentsa hasi zen aipatzen txipen *Armagedon* baten arriskua.

BBC-n teknologia gaien editorea den Leo Kelionek idatzi duenez, "gaur munduan oker dabilen beste gai askotan bezala COVID-19 pandemiak dauka honen erruaren parte bat". Koronabirusagatik itxialdiagatik asko handitu zen bai lanerako eta bai aisialdirako tresna elektronikoen salmenta, baina beste eskuarekin pandemiaren hasierak kotxe berrien salmentak hondoratu zituen. Autogileek txip elektronikoen eskariak ezabatu zituen.

Alabaina, 2020ko amaieran autoen eskaria espero baino arinago berotu zen eta

industria berriro pieza eske hasi zenerako mikrotxipen ekoizle nagusien fabrikazio-kateak beste produktueta zerabiltzaten buru-belarri: ordenagailu, telebista, *smartphone*... Eta hori gutxi balitz, 5G azpiegituren abiadurarekin hortik ere eskaria handitua zitzaien. Ororen buru, adituek diote 2021eko udazkena arte ez dela txipen eskasia gaindituko.

Pieza elektroniko merkeon ekoizpenak inplikazio geopolitikoak ere baditu, asko orain jabetu direnez. Taiwan eta Hego Korea dira nagusi, ekoizten dituzte prozesatzaileen txipen %83 eta memoria-txipen %70. Petrolioarentzako LPEE Lurralde Petrolio Esportatzaileen Erakundea izan zena dira gaur Taiwan eta Hego Korea, txipen ekoizle monopolistak.

AEBen eskuetan dago merkatuaren beste %22 eta Europarena da %8. Europak erraz egin dio uko erdieroaleen ekoizpenari, hain merkeak izanik oso etekin txikia eskaintzen duelako fabrikatzeak eta orain ikusi da horietan datzala industria europarraren ahulezia handietako bat, uneotan oso nabarmenki baldintzatzen duena autogintza baina baita digitalizazioan aitzindari izan nahi omen duen ekonomia osoa ere.


Bestalde, Taiwanek ekonomiaren osagai klabe horren ekoizpenean daukan nagusitasunak areagotu baizik ez du egiten Txinak uhartea estu kontrolatzeko daukan nahia. Taiwanek erdiz-erdi ukitzen du nazionalismo txinatarraren bihotza,

baina gainera Txinaren ekonomian ere garrantzia berezia dauka mikrotxipekin. Nazioarteko zenbait adituk Taiwanen aurreikusten dute AEBen eta Txinaren arteko hurrengo talka bortitza.

Beraz, COVID-19ak ekarritako astindu eta aldaketak, tartean ekonomiaren digitalizazioan eragin duen jautzia, aski lirateke mikrotxipen krisia esplikatzen. Baina beste faktore bat ere gehitu zaie: Taiwanek azken urteotan bizi duen lehorte handia. Zer dauka ikusteko, ordea, ur faltak silizio idorrez egiten diren mikrotxipekin?

NORA JOAN TIFOIAK?

Kurt Cobb energia eta lehengaietan berezitatutako kazetariak idatzi du *Resource Insights* blogean: "Inork gutxik pentsa zezakeen gerta zitekeenik egun batean Taiwan bere industriarentzako ur faltan aurkitzea". Taiwan uhartea Itsaso Barean Kantzer tropikoan dago eta urtean metroko 2.500 litro jasotzen ditu euritan, horietako asko orain arte urtean hirutan zihoazkion tifoiek ekarriak. Baina 2020an ez zaie tifo bakar bat iritsi. Zientzialari batek azaldu duenez, Ozeano Barearen eta Asiako hego-ekialdearen artean kokatu diren presio altuek halako hesi bat osatu dute Taiwanen inguruan, tifoia Japonia eta Hego Korearantz desbideratuz. Aurreikusten dute mende amaierarako batez beste orain arteko tifoien erdiak iritsiko zaizkiela.



TXIPAK DEFENDITU

JOE BIDEN AEB-ETAKO
LEHENDAKARIA OTSAIL
AMAIERAN, HATZEN ARTEAN TXIP
BAT DUELA, PIEZON HORNIDURA
BERMATZEKO LEGEA IRAGARTZEN.
ARGAZKIA: JONATHAN ERNST.

Oraingo idorte honek gogor kolpatu ditu Taiwango nekazariak, asko soro eta baratzeak ureztatu ezinik dabilta. Baina erdieroale elektronikoen industria ere behar adina ur barik dabil. China Water Risk erakunde txinatarrek AZALTZEN duenez, ur hornidura funtsezkoa du industria honek. Erdieroaleak siliziozko opil gisako olaten gainean eraikitzen dira, geruzatan, aldi oro ur ultra-puruz -UPW ingelesezko sigletan- garbituta. Iturriko ura baino milaka aldiz puruagoa izan behar duen UPW honetatik 1.000 litro edukitzeko 1.400-1.600 litro iturriko ur behar dira.

Zirkuituz osatutako siliziozko 30 cm -ko olata tipiko bat egiteak eskatzen ditu 6.600 UPW ur litro. Beraz, hilabeteen 40.000 olata ekoizten dituen fabri-

ka batek egun bakarrean xahutu ditzake urte betean 60.000 biztanleko herri batek behar duen ur guztia.

Bide batez esanda, mikrotxipen industria ur-kontsumoan bezain intentsiboa da energi-kontsumoan. China Water Risken kalkuluetan, fabrika bakar batek irentsi ditzake 30-50 Megawatt argindar, hiri txiki bat asetzeko adina.

Egia da beharrak eraginda industria honek ere hobetu duela uraren kudeaketan, ura berrerabiliz eta abar. Baina Kurt Cobbek aipatu du *Bloomberg* agentziak -ekologistatik deus gutxi duenak- emandako datu hau: erdieroalek ekoizten munduko bigarrena den Taiwan Semiconductor Manufacturing Companyk egun bakar batean kontsumitzen dituela 156.000 tona ur, usina

nagusia daukan eskualdeko ur guztia-ren %10.

Taiwan gai izan da txipok konkurrentziarik gabeko kalitate eta prezioetan ekoiztera iristeko eta mundu osoan teknologia berrietan eta elektronikan liderrak diren konpainiek taiwandarrei azpikontratatutuz dizkiete. Orain, ordea, Mendebaldean automozioak darabiltzan buruhausteen erakutsi dute *just-in-time* funtzionatzen ohitutako kate globalaren ahulezia. Sistema ondo dabil, bai...gelditzen den arte.

"Taiwaneko idorteak -dio Kurt Cobbek- erakusten du zer gerta daitekeen elkar hartzen dutenean hainbat arriskuk: klimaren aldaketa, hil ala biziko industria gune grafiko batean biltzea, azpi-kontratazioa, nazioarteko tirabirak eta hornidura-kateen ahultasuna". ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

info@zinkunegioptika.com

www.zinkunegioptika.com





Amaia Merino

ERREALITATEA PANTAILAN ERAKUSTEN DU



'NON DAGO MIKEL?' FILMAK LORTZEN DU IKUSLEAREN ENPATIA TORTURATUEKIN



Asier ETA biok eta Non dago Mikel? filmetako egileetako bat da. Lehena Aitor anaiarekin egin zuen eta bestea Miguel Angel Llamas Pitu kazetariarekin. Euskal Herrian gertatu eta gertatzen direnak kanpotarrei eta bertakoei ere azaltzea ezinbestekoa dela uste du zinemagile iruindarrak.

 REYES ILINTXETA  DANI BLANCO

Nolakoak izan ziren zure lehen urratsak zinemaren munduan?

Anaia eta biok kasualitatez hasi ginen. Berderatzi urte nituela Barañainera bizitzera etorri ginen aita langabezian gelditu zenean, familia zati handi bat nafarra zelako. Karpanta taberna ezaguna zabaldu zuen. Eszenatoki bat zuen eta hara artista ugari etortzen zen. Egun batean aitak jakin zuen Erdi Aroko itxura zuten gizonen bila zebiltzala *La conquista de Albania* filma errodatzeko. Bera eta tabernako bere bazkideak aurkeztu eta segituan hartu zituzten. Gauza bera gertatu zen *Akelarre*-rekin, eta orduan, haurrak ere behar zituztenez, Aitor eta biok eraman gintuzten. Nik 11 urte nituen eta Aitorrek 9. Handik bi urtera Montxo Armendarizen *Tasio* filmarako hautatu ninduten. Gaztetxo nintzela ez

nekien zer egin. Ikastolan ikasten zena ez zitzaidan gehiegi interesatzen eta galduta nengibilen. Orduan agertu zen gure bizitzan aktoreen agente bat. Emakume ingeles bat zen eta esan zigun interes handia zeukala gu Madrilera eramateko. Horrela joan nintzen Arte Dramatikoa ikastera eta atzetik Aitor etorri zen.

Han nengoela beste casting bat egin nuen Espainiako telesail bat egiteko. Hartu ninduten eta Hego Amerikan, Ekuadorren, urte bat eta zortzi hilabete izan nintzen hamasei ataleko fikziozko sail bat egiten. Han maitemindu nintzen Ekuadorrekin eta Ekuadorreko batekin ere bai. Madrilera itzuli nintzen ikasketak bukatzera; gero mutil hori etorri zen eta pentsatu genuen, zergatik ez Ekuadorrera joan? Eta han egon naiz 24 urte.

Aktore gisa lan gutxi egin duzu, ezta?

Aktore lana ez zitzaidan gustatzen. Ikaslea bai, baina lan egitea ez eta, are gutxiago, emakume izanda. Deseroso sentitzen nintzen. Sufritzen nuen. Aktore gisa aritzeko beti aukeratua izan behar duzu. Orduan ez nekien, baina denborarekin ikusi dut ez nengoela gustura gauza bat banintz bezala sentitzen nintzelako.

Ekuadorren dokumentalak eta fikziozko lanak editatzen eta muntatzen hasi nintzen. 2000. urtearen bueltan aldaketa teknologiko handia gertatu zen eta orduan sortzaile askok izan genuen tresna berriak eta kamerak eskuratzeko aukera. Lan handia zegoen eta horrela hasi nintzen ni besteen lanak editatzen lehenbizi, eta gidoigintzan ondoren.

Amaia Merino Unzueta

DONOSTIA, 1970



Gaztetxo zela aktore gisa hartu zuen parte Pedro Olearen *Akelarre* eta Montxo Armendarizen *Tasio* filmetan. Arte Dramatiko ikasketak egin zituen Madrilan eta Ekuadorren. 1993tik 2017ra arte Ekuadorren bizi zen eta bertan muntatzaille eta gidoigile gisa lan egin zuen hamaika filmetan. Edizio eta gidointza irakaslea izan zen Quitoko INCINE Zinema eta Interpretazio Institutu teknologikoan. 2013an *Asier ETA biok* film dokumentala egin zuen Aitor Merino anaiarekin eta 2021ean aurkeztu du Mikel Zabalzaren kasuari buruzko *Non dago Mikel?* Miguel Angel Llamasekin eginiko dokumental berria.

Beti dokumentaletan?

Oraingoz ez dut ikusten nire burua fikziozko lana egiten. Asko gustatzen zait, baina askoz gehiago kostatzen da fikziozko proiektu bat altxatzea. Diru mordoa behar duzu. Dokumental batean hasieran dena errazagoa izaten da, nahiz eta normalean gero dena konplikatzeko den.

Horregatik daude emakume gehiago dokumentaletan fikzioan baino?

Neurri batean bai. Fikzioa egiteko aurrekontu itze-la behar duzu eta ekoizleek emakume batengan konfiantza jartzea zaila izaten da, oso ezaguna ez bazara.

Asier ETA biok filman Aitor eta biak aritu zineten. Nola sortu zen ideia?

Aitor eta biak oso lagunak izan gara betidanik, kasik lagunik onenak. Gauza asko eta gogoeta ugari izan ditugu betidanik amankomunean. Beti euskaldunak izateagatik azalpenak eman beharrean ibili gara biak gure ingurunean. 2010ean jakin genuenean Asier Aranguren, gure lagun mina eta erreferentea, kartzelatik ateratzekotan zela, zerbait egin behar genuela pentsatu genuen. Zein une zehatzetan izango zen bezperan jakin genuen. Ni Ekuadorren nengoen eta Aitor azkar mugitu zen kamera bat eskuratzeko, kartzela atarira joan eta hasi zen grabatzen. Asierrek ez zekien ezer.

Anaiak irudiak hartu eta niri pasatzen zizkidan. Ekuadorren hasi zen gorputza eta indarra hartzen proiektua. Hango lagun batek hartu zuen produkzioaren ardura. Han diru laguntza bat eman ziguten eta gero *crowdfunding* bat egin genuen.

Gure asmoa zen kanpotarrei azaltzea zer den guretzat, euskaldun gisa, adiskidetasuna, borroka armatua, herriarekiko edo komunitatearekiko konpromisoa...

Ikuspegi itxi eta polarizatua dutenei begira jarri nahi genuen hori dena, baina, egia esan, haiek baino askoz interes gehiagorekin hartu zuen Euskal Herriko jendeak, eta hori ez genuen espero. Zintzoki eta filtrorik gabe mintzo ginen eta agian horregatik izango zen horren erakargarria hemengo jendearentzat. Filma askea izan zen eta ondorioetan gehiegi pentsatu gabe egin genuen.

Zer ondorio ekarri dizue film honek?
Agian anaiarentzat, profesionalki, go-

gorragoa izan da. Inoiz ezin da jakin, gainera, zer ate itxi zaizun erabaki bat hartzearen ondorioz. Niretzat, aldiz, oso positiboa izan da. Ni Ekuadorren nengoen eta zinemagile izatera pasa nintzen. Horrek sinesgarritasuna ematen dizu eta ikusi nuen, adibidez, nola bat-batean askok nirekin lan egin nahi zuten. Profesionalki oso ona izan da nire-




tzat eta emozionalki oso sakona, gai askoren inguruan gogoeta zintzoa egin behar izan genuelako.

Mikel Zabalzarena
oso luzea izan zen eta
asmatu zuten gezurra
oso gaizki josia zegoen.
Nola espero zuten guk
horrelako gezur bat
sinestea?"

Batzuek diote ETaren
jarduera justifikatzen
duzuela...

Askok esaten zuen hori, bai. Eta gogorra da behin eta berriz azaltzea hori ez dela horrela. Nik ezin dut kondenatu borroka armatua eskuinak nahi duen bezala, ni, euskaldun gisa, borroka horren parte naizelako. Ezin dut ardura hori gainetik kendu. Pelikularen aurkezpenean behin eta berriz esan behar nuen borroka armatuarekin ez nagoela ados. Gogorrena



prentsaren aurrean azalpenak ematea izan zen. Askok galdera gaiztoak egiten zizkiguten. Gainera hori ez da nire media eta ur handitan sartzen ginen askotan. Hori oso gogorra izan zen. Alde horretatik, Bartzelonan sentitu nintzen erosoago, zainduago.

Zeure burua ez duzu ETA bezalako erakunde batean ikusten, beraz?

Militatzen ez dut ikusten neure burua, baina helburu berdinak edo antzekoak lortzearen alde lanean, bai.

Zer eman dizu Ekuadorrek?

Ekuadorren bizitzeagatik ohartu nintzen zer zen euskalduna izatea. Askotan esaten dut gehien eskertzen dudana dela Ekuadorrera bizitzera joan izana. Begiak irekitzea izan da niretzat. Han hamasei hizkuntza hitz egiten dira eta beste horrenbeste bizitzaren ikuspuntu daude. Ni mestizoen giroan murgildu nintzen. Haiek, kulturari dagokionez, mestizotzat jotzen dute beren burua arazorik gabe, baina guk euskaldunok ez. Eta ez gara ohartzen, baina gu ere mestizoak gara zentzu horretan. Kultura mestizoa

izatea oso interesgarria da berez. Mestizoez txinparta gehiago dute bi gauza kontrajarriak direlako aldi berean. Konfliktu horren kudeaketatik sortzen da talka, txinparta. Guk ez dugu halakorik planteatzen. Euskara dugu –eta bizirik jarraitzen badugu herri bezala, euskarari esker da–, baina gure barnean kolonizatuta gaude eta hori ez dugu onartzen.

Zer dela eta itzuli zinen Iruñera 2017an?

Ez nuen espero, baina baneukan itzultzeko beharra. Kanpoan bizi dena beti kontraesanean ibiltzen da: han eroso nongoen, baina beti hona begira. Gero eta gehiago sentitzen nuen ez nuela gure kultura ezagutzen. Gainera, hankaz gora jarri zen nire bizitza sentimentala, beraz erabaki nuen nire bizitza osoa bi mailetan sartzea, hango guztia ixtea eta Euskal Herrira itzultzea.

Hona etorri eta berriz euskara ikastera sartu nintzen buru belarri. Sentitzen nuen ikastolan ikasitakoa motzegi gelditzen zitzaidala. Zerbait adierazi nahi eta ezinean. *Asier eta biok* filmaren garaian hainbatetan gaizki pasa nuen horretatik.

Non dago Mikel? proiektua duela hamar urte hasi zen. Noiz batu zinen zu?

Duela lau urte inguru. Ekuadorren nengoela dena ixten triste-triste... *Pituk* [Miguel Angel Llamas] deitu zidan eta zer zegoen azaldu zidan. Orduan argi ikusi nuen egin ahal zela.

Mikel Zabalazarena oso kasu garrantzitsua izan da. Nik 15 urte nituen gertatu zenean eta gogoan dut oso modu bizian bizi genuela. Haren alde egindako manifestazio handi bat izan zen nire lehenengo manifa. Oso bortitza izan zen. Oso haserre geunden guztiok. Tragikoa izan zen. Alde batetik, bagenekien zer gertatu zen. Bestetik, bukaera nolakoa izango zen ere bagenekien, baina, aldi berean, esperantza izan nahi genuen.

Espero zitekeen baino irudi gehiago dago kasu honetaz, ezta?

Bai, hala da. Luxuzko ikus-entzunezko artxibategia lortu zuten. Mikel Zabalza desagertua egon zen hogeigun haietan egin ziren adierazpenak eta amari, Idolia Aierbe neska lagunari eta abarri eginiko elkarrizketa asko zeuden. EITB hasi berria zen eta hango langileak inplikazio handiz aritu ziren lanean, eta dena oso ongi dokumentatuta zegoen. Gainera grabazioak bere osotasunean gorde zituzten eta hori dena altxor ikaragarria da. Hor ikusten da, adibidez, nola adin eta mota guztietako jendea joaten zen manifestazioetara. Emakumeak gona jantzita, gizonak txapelarekin, zaharrak, gazteak... Kristoren indarra zegoen hor. Ikusgarria da benetan jendeak erakusten zituen konbentzimendua eta ausardia.

Beste kasu asko izan dira, baina hau bezain mediatikoak gutxi. Oso luzea izan zen eta asmatu zuten gezurra oso gaizki josia zegoen. Nola espero zuten guk horrelako gezur bat sinestea? Euskal Herrian jendeak bertsio ofiziala ez du inoiz sinetsi izan.

Hau bertsio definitiboa izanen da?

Bai, uste dut baietz. Zorte handia izan dugu artxibo guztiak gordeta zeudelako eta Ion Arretxeren testigantza ere izan dugu. Kasu honen inguruko zehaztasun guzti-guztiak ez dakizkigu, baina pelikula honekin torturatuak izan direnei esaten diegu sinesten ditugula. Eta kanpoan ere hau dena ikusten ari dira.

Honekin argi ikusten da zinematik duen indarra. Erakundeetatik harago liburuek, olerkiek eta zinematik esaten dutenak oihartzun zabala du. Pelikula guztiak en-



patia ariketa bat dira eta film honek lor-
tzen du ikuslearen enpatia torturatuekin.

**Informazio gaindosia dago
eta askotan galdu egiten gara.
Beharrezkoak dira dokumentalak
errealitatea ulertzeko?**

Horretan gaude asko. Gure historiaren
errelatoa egitera kanpotik etorri dira. Bo-
tere ekonomikoak ere badu zerikusirik
honetan. Egin dezakezu *Patria* edo *Non
dago Mikel?* eta ikusiagoa izateko aukera
gehiago izango da *Patria*-k gureak baino,
edo ez. Edozein modutan ere, argi eduki
behar dugu errelatoaren parte ere baga-
rela. Guk gure errelatoa aldarrikatu behar
dugu. Eta honekin batera esan nahi dugu
ez dela soilik garai hartako kontu bat, bai-
zik eta tortura sistematikoki erabili izan
dela urtetan borroka antiterroristan eta
ona litzatekeela estatuak hori onartzea.
Hazteko balioko lioke.

**Tortura berriro agendan jartzea lortu
duzue?**

Bai, hala da. Ez ikusiarena egiteko ahal-
men handia dute ez soilik estatuan, Eus-
kal Herrian ere berdin.

Público egunkariak plazaratu zituen

**Juan Alberto Perote eta Pedro Gómez
Nietoren arteko audioak estreinaldia
baino lehentxeago ateratzea
estrategia horren parte zen?**

Kristoren zalaparta sortu da. Ondo ate-
ra behar zuen. Saihestu ezina izan da el-
karrizketa horiek entzutea. Pelikulan ez
zegoen denborarik dena sartzeko. Guk
bildu nahi genuen hogeai egun horietan
zer gertatu zen, protagonisten ahotsetan
bildu eta herriak nola bizi izan zuen islatu.
Gainera, hobe zen audio horiek pelikula-
tik kanpo uztea hedapen handiagoa lor-
rezaten. Dokumentalean sartuz gero, hor
enkapsulatuta geldituko ziren eta oharka-
bean pasatzeko arrisku handiagoa zegoen.

**Film honen aurkezpenetan
Asier ETA biok filmarekin bezain
besteko presiorik jaso duzue
komunikabideetatik?**

Ez. Askoz lasaiago izan da dena, hain
baita ebidenteia dena. Joera erasokorrak
baino gehiago inplikazioa sentitu dugu.
Lasaiagoa izan da dena.

Dena den, esan beharra dago komu-
nikabide batzuetara ez gaituztela dei-
tu. EITBk, adibidez, ez digu kasu gehie-
gi egin. Bereziki ETB2n oso gutxi egon
gara. Askoz interes handiagoa erakutsi

dute medio katalanek.

**Pablo Iglesias eta Irene Monterok
zer esan zizueten Madrilgo
aurkezpenean?**

Bereziki gustatu zitzaidan Irenek esan
zidana. Argazkia egiterakoan harekin
jarri nintzen eta umeengatik galdetu
nion, badakidalako ume txikiak dituz-
tenek zaila izaten dutela zinemara joa-
tea. Esan zidan seme nagusia negarrez
gelditu zela eta berak azaldu ziola oso
gauza garrantzitsua den zerbait ikastera
zihoazela. Ezagutu behar zutela iraga-
nean gertatu zen zerbait oso larria, etor-
kizunean berriro gerta ez dadin. Asko
gustatu zitzaidan azalpen hori.

Askotan kexatzen gara estatuko ez-
kerretik enpatia gutxi jasotzen dugula-
ko presoen sakabanaketaz, motxiladun
umeez... eta torturaz ere bai, baina orain-
go honetan estreinaldira etorri ziren, gai-
nera gobernuan bi goi kargu izanda, eta
horrek zerbait esan nahi du.

Harrera ona publikoaren aldetik?

Oso ona hemen eta baita estatu mailan
ere. Burgosen berehala erori zen kartel-
degitik, baina gainerakoetan *top-ten*-etik
ez gara jaitsi asteetan. ●

Apirilekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?



- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Urte osoko harpidetza | Hego Euskal Herria eta Espainia | 29€ ● aizu.eus



Hirugarren olatu errepresiboa



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Zarzuclan eta Moncloan ez dakite nola lortu. Autonomia kentzeak, erbesteak eta kartzelak ez zuten geldiarazi. Inhabilitazioek, pandemiak eta hauteskunde inposaketa berriak ere ez. Kataluniako gehiengo independentistarekin amaitzeko enegarren trikimailuak porrot egin du berriro, eta, gainera, pixka bat ezkererrago lerratu du independentismoa.

Oraingoan, operazioak *Illa efektua* zuen izena. Aurrekaririk gabeko kanpain mediatiko batek eta parte-hartzearen beherakadaren iragarpen egoki batek bultzatuta etorri da. Agian oraindik ez dute ulertu *botoa emateak zerbaitetarako balioko balu, debekatuta legoke* leloa balekoa egin zuten egunetik lau urte betetzeko bidean gaudela. Eskubide hori erabili nahi izateagatik jipoitu zuten jendea ez da etxean geratzen, badakielako orain beren botoak min egiten diela.

Boteretsuengandik ikasi dugu, besteak beste, ez dakitela porrotak onartzen. Zaurituta daudenean oldarkorrako erasotzen dute beti, eta normalean mendekuren bat dute aurreikusia. Ez sinetsi kasualitateetan. Hauteslekuak itxi eta 48 ordura, mossoei Lleidako unibertsitatean sartzeko agindu zieten Pablo Hasél rap abeslaria atxilotzeko. Aurreko astetik zuten egiteko aukera, baina karta gorde zuten, nahi modura jokatzeko.

Eskubideen eta askatasunen murrizketaren kontrako olatuak bi aste iraun zuen, baina ondorio errepresiboak den-

Azken hilabeteko mobilizazio zikloan 142 pertsona atxilotu dituzte Katalunia osoan, 2017ko urritik 3.200 pertsona baino gehiago izan dira errepresaliatuak arrazoi politikoengatik

boran luzatuko dira. Lehenik eta behin Hasélentzako, espetxeratu zutenetik beste auzi batzuetako zigorrak pilatu baitizkiote. Helburuak argia dirudi: eskarmentatzea. Rap abeslaria, baina, batez ere, bere askatasuna eskatzeko manifestatu diren guztiak: “Ez du ezer tarako balio izan”, sinetsarazi nahi diete.

Azken hilabeteko mobilizazio zikloan 142 pertsona atxilotu dituzte Katalunia osoan, 2017ko urritik 3.200 pertsona baino gehiago izan dira errepresaliatuak arrazoi politikoengatik. Azken atxilotuetako bederatzi behin-behineko espetxealdian daude: eskoziar bat, sei italiar, frantziar bat eta kataluniar bat. Lehenengoa, ihes egiteko arriskua eta Brexita argudiatuta, Erresuma Batua euroaginduen mekanismo komunetik kanpo geratu delako ofizialki. Gainerako zortziak, izaera anarkistako erakunde

kriminal hipotetiko baten eraikuntzari esker, Bartzelonako istiluak planifikatzen eta exekutatzen omen zituena –azken horietako bat karguekin aske utzi berri dute–.


Gobernu berri bat eratzeko atzera-kontu betean, ordena publikoa kudeatzeko eredua eztabaidagai da beste behin baina, orain, negoziatorako elementua ere bada. Hasél Ponent-eko espetxean sartu zuten egun berean, 19 urteko neska batek begi bat galdu zuen Mossos d'Esquadra Brigada Mugikorrak (Brimo) jaurtitako foam bala baten-egatik. Lehen olatuan, urriaren 1ean, Roger Español izan zen Espainiako Polizia Nazionalaren tiro baten erruz begibakar geratu zena. Auzitegi Gorenaren epaiak 2019ko urrian eragindako bigarren olatuaren ondorioz, lau gaztek utzi zioten ordura arte bezala ikusteari.

Azken legegintzaldian, Junts eta ERC-ren gobernu ez zen gai izan Generalitatea akusazio partikular gisa erretiratzeako manifestarien aurka irekitako hainbat eta hainbat prozesu judizialtan, zeinetan polizia autonomikoak dauden salatari gisa. Agenteek beren jarduera -protokoloak errespetatzea, jarduera polemikoak fiskalizatzea eta erantzukizunak argitzeko neurriak hartzea ere ez dute lortu. Puntu honetara iritsita, beti galdetzen diot neure buruari: nola atera ote zen Trapero absolbituta, nondik eta Espainiako Auzitegi Nazionaletik? Madrilek ez du traidorerik ordaintzen? ●

Nor da “gu”



MAIALEN BERASATEGI
CATALÁN
ITZULTZAILEA



PAULA ESTÉVEZ

Intelligentzia artifizialaren aroan bizi garela-eta, lagun batek txiste erraza egiten du beti: ez ote garen igaro moztasun naturaletik intelligentzia artifizialera zuzenean, intelligentzia naturaletik pasatu gabe. Beste lagun batek beti erantzuten dio intelligentzia naturala behar dela baita halako txiste txarrak egiteko ere.

Teknologiaren aurrerabideez eta intelligentzia artifizialaz (IA) hain sarri hitz egiten den honetan, nire *smartphone*-aren pantaila zartatuan inkesta kurioso baten berri irakurri nuen aurrekoan, denda batera sartzeko zain nengoela, kalearen ertz bat soilik okupatu ordez espaloia alderik alde trabatzen zuen ilara ez oso *smart* batean jarrita: artikulua zioenez, goi-mailako ikasketak dituztenek askoz ere begi hobez ikusten dituzte teknologia dakartzan aldagetak, halako ikasketarik ez dutenek baino. Karreradunentzat aukera bat omen da IA; karreragabeentzat, ziurgabetasuna eta arriskua.

Kutsu elitista eta sinplista agerikoa zerion artikuluari, eta zer pentsatua eman zidan. Jakin-minez, erabaki nuen inkesta bat egitea nik ere gertuko jendearen artean, batere metodo zientifikorik gabe, hori bai. Jaso nituen eran-

tzunen arabera, gehienek uste dute teknologia izugarri lagungarria dela egunerokoan, inolako duda-izpirik gabe. Aldi berean, ordea, batzuek irudipena dute zenbait aurrerabide teknologiko ez ote diren egiten *egiteagatik*, edo *egin daitezkeelako*, edo, are, etekin pribatuak eta dirulaguntza publikoak jasotze hutsagatik, gero herritarrei inbutuz sartu eta saltzeko, lehen ez zeuden beharrak sortuz, zaharkitze programatua hedatuz eta halako beste trikimailu batzuk baliatuz.

Ez baitira gutxi garapenerako baliabide publikoak eskuratu eta ondoren emaitzak eta patenteak pribatizatzen eta aberasbide bilakatzen dituztenak. Maiztxo ikusten baititugu interes publiko orokorraren ordezkari omen ditugunak herritar gutxi batzuen egitasmo pribatuak lehenesten. Horrek eta desinformazioak mesfidantza pizten diote azkenean askori. Beharbada, gaitz erdi litzateke baldin eta, laguntza publikoen truke, halako enpresei baldintza gisa jarriko balitzaie beren trepetak asmatzen eta publizitatzen gastatzen duten adina denbora, indar eta diru gastatzea aurrerabide horien ondorio negatiboak prebenitzen, trantsizioak eta langileen baldintzak zaintzen, eta herritarrei sa-

kon azaltzen nola eta zertarako erabili behar diren halako teknologia berriak kaltegarri suerta ez daitezen.

Izan ere, aditu askori entzun diongu, eta egia da noski, problema ez dela teknologia berez, baizik eta zer egiten dugun gizakiok teknologiarekin. Ezinegonak baretze aldera, esaten digute lasai egoteko, “guk” erabakiko dugula zer egin halako aurrerabideekin. Baina nor da “gu”? Zeren duela dozenaka urte ere zenbaitek esaten baitzuten bizimodua teknologizatzeak eta mekanizatzeak gutxiago lan egiteko modua ekarriko zigula, eta berdintasun sozial handiagoa; aukera berriak sortuko zitzaizkiela ordura arte aukeragabetuta egondakoei, eta eguneroko eginbehar akigarrietarako ez baizik bizitzeko bizi ahalko ginela denok.

Ikusi dugu emaitza: gure orain hau ez da, inondik ere, iragarri zuten etorkizun patxadatsu, bizigarri eta bidezko hura, gutxi batzuentzat salbu. Biharko orainaldiak bestelakotuko badira, hartarako eskumena dutenek hartu eta harrarazi beharko dituzte premiazko neurriak gaur, egiaz segurtatzeko betikoek ez dituztela emango betiko aurrerapausoak, betikoen gainean betiko zapata. ●



BEÑAT MUGURUZA
IRAKASLEA ETA
IKERTZAILEA

Atzerria ala hil

Millennial-ok eta ondorengo belaunaldiek atzerrira jo behar izan dugu bolada baterako, eta batzuetan gustura joan gara. Dela Erasmus, direla praktikak, dela lan bila, dela nazionalismoa sendatzeko. Kolore guztietako esperientziak ezagutu ditut inguruan, eta ezin hemen argazki bat osatu.

Millennial-ok eta ondorengo belaunaldiek, halaber, entzun behar izaten dugu zortekoak garela aukera hori izateagatik. Zuzenean esperientzia positibotzat hartzen dira, defektuz, jakin gabe nola sentitu den bidaiaria. Baina ulertuko didate hogeita gutxi urte betetzerako plaza finkoa lortua zutenek, esaten diotenean nori eta lan-mundua etorkizunean nolakoa izango den arrastorik ere ez duen bati, nori eta kasurik onenean lanpostu ezegonkorren artean saltoka ibili beharko duen bati, gazte eta ez hain gazteari, “ze inbidia ematen didazuen...”, “gure garaian ezin izaten genuen halakorik egin”, “bua, Alemanian hiru urte! Ze esperientzia, ezta?” eta abar botatzen dituztenean, esaten badiet ez direla ondo neurtzen ari haien hitzak.

Achtung, zeren bidaiatzearen negozioa eta migrazio mota baten erromantizazioa erabat barneratuta baititugu. Eta dituen alde on, zoragarri guztiak ahaztu gabe, gutxitan aipatzen da etxea uzten duenak maite duen jendea askotan etxean uzten duela, eta nahiko lukeela haiek ikusten segitu, baina ezin izango duela; eta agian

ez dela erraz egokituko atzerrian; hizkuntzarekin, kulturarekin, ohiturekin zailtasunak izan ditzakeela; edo, zuzenean, ez duela etxea utzi nahi, behartuta dagoela etxea uztera.

Sabino Arana sarietako bat jaso berri duen Jose Barreirari elkarrizketa egin zioten Radio Euskadin, eta ia liluraz galdetu zion kazetariak ea 17 urterekin jatorrizko Galizia utzi eta Alemaniara joateko abentura zer moduz joan zen, baina uhineta-ko magia berehala itzali zuen Barreirak: “Tira, inork ez du plazeragatik migratzen; plazeragatik bidaiatu egiten da”.

Esana du *Glovo rider* enpresako fun-datzaileetako batek, sarkasmorik gabe, zoragarria litzatekeela haien langileek hiri bakoitzean hiru hilabetez lan egiteko esperientzia bizitzea. Eta ohartzerako, *El País* egunkariak salduko digu gazteak *job-travelling* edo antzeko zerbaiten gurdira igo direla.

Aurreko belaunaldietako askok ez omen zuten atzerrira joateko hainbeste erraztasunik izan, ezta obligaziorik ere. Baina badute aukera galdetzeko, atzerrian egon direnei, egongo direnei, gus-tura egon ote diren, nahi zutelako joan ote ziren, lan-mundu basatiak bultzatuta egingo ote dituzten maletak. Gazte eta ez hain gazte askok hautu zail bat egin behar dutelako –eta onartuko didazue dramatis-moa, hitz-jokoaren mesedetan–: atzerria ala (gosez) hil. ●



UXUE APAOLAZA
LARREA

Abestiak zaurietan

Gure bizitzako kantak, maiz, ez ditugu guk aukeratzen. Momentuetan sartzen dira, argazkietan oinezko ezezagunak bezala. Konfinamenduaren urteurrenari jaramonik egin gabe nabilen, entzun nahi ez nuen abesti bat-tek nire pragmatismoari zaplazteko bat eman dionean. Mespretxuz tratatzen ari nintzen kanta batek, hain zuzen ere, si-nesten ez ditudan hitzez josia: “Zeinen ederra izango den”.

Nire talaiari onartzen dizkiodan pri-bilegioen jakitun, amorrak lekualdatu ditut, minak besteengan marraztu, eta konfinamenduan semearen animatzai-le soziokultural, kartoizko jostailuen ar-

tisau, sukaldari, mendeko izan nintzen, nire lan-konpromisoak betetzeko gai si-netsi nuen nire burua eta dena pasarte epiko batera mugatu nuen nire gogoan, irribarreitsu, soineko loreduak soinean, logale ibiltari. Kitto, itxita.

Youtuberaren bihurtune batetik irris-tatu da kanta, eta ezustean hartu naute lehen notek, irudiek: oso aspaldikoak di-rudite. Eta ezin diot zotinka negar egiteari utzi. Buruan bi urteko semea ikusten dut ohean saltoka, abestia hasi orduko “hori, hori!” oihuka, “ez kendu!”, 45 metro ka-rratuko bere munduaren erdian, zorion-tsu. Zoriontasunaren oroitzapena baino labana zorrotzagorik ez dago batzuetan. ●

Polizia-aparatuaren abolizioa



GASTEIZKOAK
TALDE ANTIMILITARISTA

Gure ikuspegiaren gakoak orain dela zortzi urteko artikulua batean laburbiltzen saiatu ginen (*Gara*, 2013-06-16), eta gaur egun ere haiei eusten diegu, baina oraingoan, gure us-tez, jende asko, baita errealitatea erro-tik eraldatu nahi dutenak ere, eztabaida gaizki bideratzera eramaten duen gai bati buruz jardun nahi dugu; izan ere, Poliziaren gaiari heltzean erro-tik aldatzeko behar hori ahaztu egiten dutela dirudi, eta eztabaida balizko Polizia-e-reduen inguruan oinarritzen dute. Ezin hobeto laburbiltzen zuen Joseba Alvare-zek duela gutxi hedabide honetan ber-tan (*ARGIA*, 2021-03-08): “Arazoa ez da Polizia, arazoa sistema da. Sistema hone-tan bestelako Polizia eredurik ez dago”.

Ez da kontu makala: izan daitezkeen polizia-ereduei ekiten badiegu, zeharka bada ere, onartzen dugu ezinbestean polizia behar dela. Eta hori ez zaigu gertatzen militarrez ari garenean, mili-tarrak eta Poliziak txanpon beraren bi aldeak badira ere: herrien aurkako “legezko indarkeriaren” monopolioa-rena, dela mugetatik kanpo, dela gure kale eta plazetan. Eta “legezko indar-keria” horren monopolioaren inguruan jorratzen dira Polizia-ereduei buruzko eztabaida faltsu horren oinarritzko gai batzuk: nork, zertarako eta noren aurka sortu zituen Poliziak, eta gero apar-atua garatu? Nork, zertarako eta noren aurka aritzeko eman zien indarkeriaren monopolio hori? Nola, nork eta zer ideo-logia- eta antolaketa-parametro-tatik tre-batzen ditu indarkeria hori gauzatzeko? Nork armatzen ditu eta ematen dizkie era guztietako baliabide errepresiboak eta kontrol-metodoak? Zergatik eman

Gero eta ugariagoak
dira auzolanetik
sortutako ekimenetan
populazioen
segurtasuna lantzeko
beste modu horien
alde ari diren
esperientziak

zaie Poliziei aginte-maila? Nork zain-tzen ditu polizien interesak eta ezku-tuan egindako gehiegikeriak? ... Egoera hori izaten da, itxurakeria eta hitz-jo-koak gorabehera, gobernatzen duena gobernatzen duela. Kataluniako Polizia Eskolako zuzendari izandako Amadeu Recasensen hitzetan, Polizia-aparatua “une jakin batean (beti arrazoi ekono-miko, historiko, sozialetan... oinarrituta) klase nagusiek duten kontrol-tresnetako bat da. Eta hori erabilita euren botere ekonomikoa eta gobernatzeko modua inposatzen diete euren botere guneko menpeko gizataldeari”.

Gainerakoan, orain dela zortzi urte adierazi bezala, geureari eusten diogu: jakina, badaude beste aukera batzuk se-gurtasunari heltzeko. Baina ez Polizia guztien oinarri den *herritarren segur-tasuna* abiapuntu hartuta, baizik eta giza-segurtasunean oinarrituta (eta horren barruan osasun integrala; naturarekiko errespetua eta kontserbazioa; bizitza duinerako oinarritzko baliabideak; se-

xuagatiko, arrazagatiko, ideologiagatiko edo sinesmenagatiko diskriminaziorik eza...). Gero eta ugariagoak dira auzola-netik sortutako ekimenetan populazioen segurtasuna lantzeko beste modu ho-rien alde ari diren egungo esperientziak (bereziki Latinoamerikako komunitate indigena batzuetan; honetan ere badugu zer ikasi!), erantzun irudimentsu bezain zentzudunak emanez indarkeria sexistari, interes ekonomiko espekulatibo eta espoliatzaileen jazarpenari edo delin-kuentzia mafioso antolatua bezalako gai larriei. Horiek bai, horiek dira Poliziaren abolizioaren aldeko apustua indartzeko premiaz jorratu beharreko ikaskuntzak eta eztabidak.

Hamarkada batzuetatik hona kan-tutegi herrikoiak ere erantzun izan die aipatu galderei, esaterako *Vómitoren Fuerzas de Seguridad*, eta La Pollaren *Era un hombre* abestien bidez. Erantzun bera eman zaie urteetan ACAB (*All Cops Are Bastards*) leloarekin pareta, kamise-ta, pegata eta afixetan. Orain Gasteizko Udalak kriminalizatu nahi duen mezua, tokiko egokitzapen batean (*All Pitufos Are Bastard*) bistakoa dena esateagatik: Polizia guztiak *-pitufo*-ak ere bai- sasi-koak edo bastartak dira -eutsi, *Guztiok gara Gargamel-*; izan ere, hizkuntzaren Espainiako Errege Akademiak (RAE) berak honela definitzen du: “Jatorritik edo izaeratik degeneratu dena edo alde egiten duena”. Kasu honetan, herritik. Komeni da ez ahaztea; erantzun horiek argi edukita jakingo baitugu zer espe-ro daitekeen edozein Poliziarengandik, edozein direla eredia eta osatzen dute-nen klase soziala, ematen duten botoa ematen dutela. ●

Utopia handietarako faktoria txikiak



GOTZON BARANDIAREN
ARTEAGA
IDAZLEA

Layla Martínezi irakurri berri diot Utopia ez da uharte bat saiakeran: “Distopiek postmodernitatearen kultura-esparruan ditugun irrika kolektiboak islatzen dituzte. Modernitatean ez bezala, jada ez dugu uste etorkizuna aurrerabideari lotuta dagoenik eta ezinbestean hobea izango denik. Beldurra eta antsietatea eragiten digun zerbait bihurtu da eta ondorioz, okerrera egiteko arriskuez, etorkizun hurbilean espero ditugun arriskuez ohartarazten diguten sormen lanak plazaratzen ditugu. Logikoa da, baina baita suntsitzaila ere”. Eta ondoren dakar luzarorako azkura eragin didan esaldia: “Sormen lanek errealtatea islatzen dute, baina hori egitean, era berean errealtatea sortzen dute. Etorkizun okerragoak irudikatzeak etorkizun hobean pentsatzeko gaitasuna kendu digu”. Irakurrita atoa amaraundu zaizkit urte hasi berritan entzun, irakurri, bizi eta ikasitako hainbat pasarte. Plaza Hutsak euskalgintza arnasberritzeari buruz antolatu zituen jardunaldien baitan, *Herri kontakizuna birsortzeko bulkada kulturala* atalean, Garbiñe Ubedak amets kolektibo baten falta dugula salatu zuen, Herriaren zentzua ez dagoela kalean, ez dugula arnas-

Iruditzen zait Euskal Herriaren historiaren une ezin aproposagoa dela bizi dugun pandemiare haur errealtate berriak sortzeko

ten, Herri gisa amets bat falta zaigula eta bere ustez amets horren hauspoa sortzaileok gairela baina sortzaileok ezinean ari garela. Telesforo Monzonen heriotzaren 40. urteurrenaren harira Iratxe Esnaolak eta Urko Aiartzak sinatutako iritzi artikuluan zioten Monzonek argi zuela “euskara eta kultura zirela gure nazioaren ardatza eta bihotza; horiek galduta nazioa galdua zela, eta, ondorioz, ezein independentziak ez zuela zentzurik izango”. Marina Lameioren *Dardara* filma jendez betetako zinema areto batean ikusi eta amaieran txalo zaparrada luzea entzunda gogoratu dut 2019an, Berri Txarrak *Ikusi Arte* biraren baitan, Bilboko Kobetamendin, 20.000 lagun elkartu ginela euskaraz kantatzen duen

musika talde baten emanaldia eta aurreko jaialdia bizitzeko. Eta gogoratu dut ahalegin itzelak egin genituela Sadarren, Anoetan, Mendizorrotzan eta San Mamesen antolatzeke, benetan sinesten genuelako 20.000 lagunetik gora biltzeko gai izango ginela euskal kulturagintzaren ospakizun erraldoi baten baitan. Errealitateari men egin izan bagenio, ez ginen 22.000 lagun elkartuko Nafarroa Arenan 2019ko azaroaren 22 eta 23an. Baina egin egin genuen, errealtatea sortu genuen, gure gaitasunetan sinesten genuen lan-talde izugarri baten ahalegin eskergari esker, proposatuz gero eskuzabalik erantzuten duen jendetzari esker. Fede berbera dute Aiaraldea Ekintzen Faktoriakoek, utopikoa zirudiena gauzatuz, errealtateari men egin gabe, errealtate berri bat sortuz, apirilean zabalduko dituzte Laudion *Faktoria kultur plaza*-k, bizitzako esparru guztietan euskaraz egituratuko diren proiektu eraldatzaileak eraikitzeke faktoriak. Eta iruditzen zait Euskal Herriaren historiaren une ezin aproposagoa dela bizi dugun pandemiare haur errealtate berriak sortzeko, gauzatu ditugun utopien errepasoa egin eta gauzatu ditzakegunak elkarrekin zerrendatzeko. Ni horretara noa. Laster arte. ●


OPARITU ARGIA

ZAINDU NAHI DUZUN HORRI



ARGIA *Puska dezagun izotza*

ESKOLA EUROZENTRIKO ETA ZURIA NOLA DESERAIKI



Mendebaldeak munduko ezagutzak kolonizatu eta ezabatu ditu, errelato mugatu eta desitxuratua nagusituz; herri askoren errepresentazio falta horrek, baita irakasleen espektatibek ere, kolektibo minorizatueta ikasleen autoestimuan eta eskola-ibilbidean eragin nabaria du. Hezkuntza dekolonizatzeko gakoez, bizikidetzarako espazioez, arrazakeria eta ijitofofia gainditzeko estrategiez, protokolo eta plan espezifikoaren premiaz, gure jarrerak aztertze beharraz, segregazio politikez eta familiek eskolan parte hartze bidez aritu dira erreportaje honetako lau aktibistak.

 **MIKEL GARCIA IDIAKEZ**
 **PAULA ESTÉVEZ**

Integrazioaren paradigma batetik gatzoz eta horrek eragin du gure ikasle asko 'besteak' gisa sailkatzea; gure kulturak partekatu beharrean, besteen kulturak desintegratu ditugu, nahi baino maizago". Aurkezpen horrekin abiatu da STEILAS sindikatuaren idazkaritza feministak antolatutako saioa. Lau emakumek hartu dute parte solasaldian: Tamara Claveria Gimenez, AMUGE Euskadiko Emakume Ijitoen elkartearen lehendakariordea; Jeanne-Rolande Dacogna, Garaipen kolektibo feministak antiarrazistako eta Euskadiko Afrikar eta Afrikar ondorengoen elkartearen kidea; eta Irati Barriocanal Martinez eta Natasha Rueda Cardenas, Gasteizko alde zaharrean bizikidetzatza sustatzea helburu duen Goian aisialdi elkartearen partaideak.

CURRICULUM ETA ESKOLA-IBILBIDE BAZTERTZAILEA

"Curriculumean txertatu behar dira pertsona ijitoak eta haien jakintza, gauza interesgarri asko ditugulako transmititzeko. Gure kulturari balorea eman behar diogu eta ijito herrian dauden erreferente positiboak lehen mailan jarri behar ditugu, ez dadin betikotu buruan dugun imajinarioa, hedabideek hainbeste sustatua", dio Tamara Claveriak. Izan ere, curriculum baztertzaile baten ondorioa da ijito ikasleak autoestimu oso baxua duela eta uste duela ez dela gai izango eskola arrakastaz bukatzeko. "Beretzat, eskola graduatua da lor dezakeen helburu gorena, hori delako jaso ohi duen mezua. Nik neuk Batxilerrak ikasi nahi nuen eta gradu ertaineko ikasketetara bideratu ninduten, badiudielako ijitoek ez dugula gaitasunik curriculum normalizatu bati erantzuteko".

Oro har ijitoek eskolarekiko duten harremana argigarria da: Claveriaren hitzetan, eskola derrigorrezkoa dela jakin arren, jakin badakite baita ere eskolak ez diela enplegurik ziurtatuko, "ijitoak ez garelako kontratatze modukoak gizarte honetan", eta beraz marko horretan ikasle ijitoak ez du eskola bere sentitzen. "Zuentzat lana da inportanteena, horretarako formatzen zarete eta zuen estatus soziala da duzuen lanaren arabera, baina guretzat halakorik ez da existitzen, ez gaituztelako enplegatuko, eta gure balioa eta aitortza soziala gure komunitatearen parte izateak ematen

digu". Horregatik da hain inportantea bestelako curriculum bat: "Ikasketak duen gauzarik garrantzitsuenetakoa da amets egiten laguntzen dizula, zailtasunak bihurtzen dituela aukera, eta hori da curriculumarengandik behar duguna, diskurtsoa humanizatuko duen curriculumak, arrazakeriak deshumanizatu egin gaituelako. Txikitatik ezagutu dadila gure herriak jasan duen jazarpena, errepikatu ez dadin lehenengo kontatu egin behar delako: gure historiak curriculumaren parte izan behar du, gure herriarekiko dagoen zorra da. Eta gure historia kontatu dadila ikuspegi antiarrazista eta feminista batetik, ez dugu nahi berriro ere ikuspegi paternalista gailentzerik".

AUTOPERTZEPZIO NEGATIBORAKO BAZKA

Kultura minorizatuak hezkuntza materialean ikusgarri egitearen garrantzia nabarmendu du baita ere Jeanne-Rolande Dacognak, baina kontuan izanda ez agertzea bezain kaltegarria dela "gaizki" agertzea: "Ikasle hauei eta hauen kulturari buruz hitz egiten denean guztia negatiboa bada, edo testu-liburuetan ez badira inoiz agertzen, nola eraikiko dute autopertzepzio positibo bat? Ispilu eta erreferente positiboak behar dituzte, autoestimua bide horretan eraikitze eta gizarte honen parte sentitze. Sarri ikasle hauetaz dugun irudia da biktima direla, premiak dituztela edo mehatxu direla sistemarentzat, ez dakigulako oso ondo denontzako aukera berdintasuna nola materializatu, batzuetan ez dagoelako nahikoa baliabide, edo horretarako nahikoa gaitasun, nahikoa gogo...".

Egungo jakintzaren hegemonia eurozentriko, arrazista eta matxista ulertzeko, prozesu historiko baten emaitza dela gogoratu du Dacognak: munduko herri ugariaren jakintzak ezabatu egin dira, Mendebaldeak jartzeko jakintzaren erdigunean. "Europako sorginak ezabatu zituzten, emakumeen ezagutza ezabatze; Al Andalusen bizi ziren arabiarrekin eta judutarrekin berdin, haien liburutegiak erre eta Europatik bota zituzten, garbiketa etnikoa egin zuten. Europatik atera eta Afrikan, Amerikan eta Asian genozidioa eta epistemizidioa zabaltu zuten, inbaditutako herrietako ezagutza suntsituz. Horretarako, justifikazioa zen barbaroak zirela, atzeratuak, eta euro-

“Ikasle hauen kulturaz hitz egiten denean guztia negatiboa bada, edo testu-liburuetan ez badira inoiz agertzen, nola eraikiko dute autopertzepzio positibo bat? Ispilu positiboak behar dituzte autoestimurako, gizarte honen parte sentitzeko”

Jeanne-Rolande Dacogna

parrek zibilizatzea behar zutela. Pentsa, testu-liburu batzuetan oraindik Amerikaren aurkikuntzaz hitz egiten da, nola izango da aurkikuntza bertan jada jendea bizi bazen? Beste adibide bat: Giza Eskubideen Gutunaz galdetzen baduzu, jendeak esango dizu europarrek asma-tua dela, baina giza eskubideen lehen gutuna XIII. mendekoa da eta Maliko inperioak jaso zuen". Gainerako herrien ezagutza ezabatzeaz gain, beste bi adar ditu jakintza kolonizatze prozesuak: ezagutza horiez jabetzea (hainbat herri-tako ezagutza medikoa hartu eta paten-tatu egin dute farmazeutikek, azaldu du Dacougnak) eta gainerako herrien eza-gutza gutxiestea. "Horrela eraikitzen da hegemonia, eta hori hezkuntzan sustrai-tuta dago, ez bakarrik European, Afrika-ko unibertsitateetan ere Mendebalde-a nagusitzen da curriculumean, mundu-ko eliteak jakintza eurozentriko horren arabera formatzen dira".

Hegoaldean kontzientzia hartu eta pixkanaka paradigma aldatzeko lanean ari diren moduan, gurean ere munduko herrietako jakintzak ikusgarri egitea eta curriculumean barneratzea inportantea dela deritzo Dacougnak, beste historiei ateak irekitzea, ikasle guztiak aberas-tuko direlako, baita "bertako" deitzen ditugun ikasleak ere. Eskolak ateak ireki behar dizkie beste historiei, aktibismo-tik eta esku-hartze sozialetik eraikitzen diren jakintzei, emakumeen ezagutzari, "jakintza unibertsalaren orde-z izan da-din jakintza pluribertsala".

IRAKASLEEN JARRERA ETA ESPEKTATIBAK, FUNTSEZKOAK

"Bitxia da: inork ez du zalantzan jar-tzen sistema patriarkala dela gurea, eta ondorioz barneratuta ditugula hainbat jarrera matxista, baina sistema arrazista dela eta gizartean bezala ikasgelan arra-zakeria presente dagoela diodanean, auzitan jartzen didate hori hezitzaileek: eurek ez dutela halakorik egiten, ikasle guztiak berdina direla beraientzat...", dio Tamara Claveriak. "Arrazakeria da pentsatzea ume ijito bat ikasgelan iza-tea gatazka-iturri izango dela; eta ikas-le ijito baten familia eskolara deitzen denean, beldurra zaielako familiarekin ikastetxe erdia biltzea, hori ere arraza-keria da, baita haiekiko harremana hie-rarikoa izatea ere, adibidez gurasoei adierazten zaienean 'hau eta hau egin behar duzue, guk dakigulako zer den egin behar dena'".

Gure aurreiritzi eta estereotipoen

kontzientzia hartzea da lehenengo pau-soa, guk egiten ez duguna ari garelako ikasleei eskatzen: "Nahi dugu ez deza-tela jarrera arrazistarik izan, helduok etengabe ditugunean", kritikatu du Cla-veriak. Are, kultur-aniztasunaren ize-nean diskriminatzen dituztela salatu du: "Lehen esaten ziguten ijito izateaga-tik gutxiago ginela, eta orain diskurtsoa da ijitoak beste kultura bat garela eta ezberdin tratatu behar zaigula; prakti-kan diskriminazio bera da. Ikusi jolasga-raia: ijito ikasleak alde batean, gero bes-te hainbat ikasle erdigunean jolasten, eta urrunago neskak taldetxoan. Apurtu dinamika horiek, egin jolas kooperati-boak, jolas hezitzaileak... eskola ezin-bestekoa baita norberaren eraikuntzan. Ezin zaio ikasle ijitoari denbora guztian errudun sentiarazi eta arazoa bera dela sinetsarazi, egitura ez dagoenean pres-tatuta pertsona guztiak modu berean sentitu gaitezen amets honen parte".

“Ezin zaio ikasle ijitoari denbora guztian errudun sentiarazi eta arazoa bera dela sinetsarazi, egitura ez dagoenean prestatuta pertsona guztiak modu berean sentitu gaitezen amets honen parte”

Tamara Claveria

Pigmalion efektua mahaigaineratu du Jeanne-Rolande Dacougnak: laburrean, efektu honen arabera hezitzaileak ikas-leengan itxaropen handiak dituen ikasleek emaitza hobeak lortzen dituzte itxaropena txikia denean baino. Alegia, irakasleak ikaslearengan dituen espektatibek baldintzatuko dute ikaslearen arrakastarako aukera, "eta aurreiritzie-kin jokatzeko badugu, migratzaile eta ijitoekiko espektatibak automatikoki baxuak badira, pentsatuz hezkuntza sis-tema tamalgarri batetik datozela edo maila nahikorik ez dutelako hemengo hezkuntzaren kalitatea okertuko dutela, arazo gisa ikusiko ditugu, kapaz ez diren pertsona gisa. Hori guztia barneratuta

badugu, zaila da ikasle horiengan es-pektatiba altuagoak izatea, eta ondo-rioz, haienganako jarreraren ere eragina izango du".

Gako interesgarria gehitu du Dacoug-nak: "Umeetako batzuk, jatorri atzerri-tarra izan arren, hemen jaioak dira. Ezin dugu jarraitu euren atzerriartasuna az-pimarratzen; inportantea da hemengo parte direla nabarmentzea eta hori in-dartzea".

Dakiguna eta egiten duguna eten-gabe berritzen joan behar dugula dio Natasha Ruedak: ohiturak, erritmoak, dinamikak, kontzeptuak... ez baitira berdinak batzuentzat eta besteentzat. "Eskola ematen ari garenean, ongi uler-tzen digute ikasle guztiek? Eta haien fa-miliek?". Aniztasuna gestionatzea "ez da festa kultur-anitzak egitea eta ikasle musulmanak ditugulako kus-kusa jatea", dio Ruedak: "Ikasle bakoitzaren indi-bidualtasunari egin behar diogu kasu, ikasle bakoitzak bere familia, herri eta eskualdearen erreferentzia jakinak izango dituelako, eta agian gure ikasle marokotarrak ez du kus-kusa jaten. Ez du eskatzen sekulako ikerketa lana egi-tea, galdetzea baizik, entzuten jakitea". Ruedak erdigunean jartzen du ikasleen benetako parte-hartzea eta dena hitz egitea; "gatazka ez da ezkutatu behar, alderantziz, aukera da gertatzen dena lantzeko".

Begirada zabalagoa proposatu du Da-cougnak: gizarte jakin baten barruan dago eskola, zein gizarte nahi dugu erai-ki? Eragin dezagun gizarte justuagoa lortzeko. "Kontua ez da heroiko jartzea, baina egunerokoan zaindu dezakegu gure jarrera, egiten dugunak ez ditzan sostengatu hainbat kolektibok jasaten duten menpekotasuna, diskriminazioa eta deshumanizazioa. Indibidualki egin dezakegu, gure espazio txiki eta parte-katuetan, baita kolektiboki ere, aintzat hartuta pertsonak ez garela identitate itxiak, faktore sozial ugari gurutzatzen gaituztela eta borrokak interseksionala izan behar duela, gizarte utopiko horren bidean".

BALIABIDEAK, FORMAZIOA, PLAN ZEHATZAK

Aniztasuna lantzeko eta kudeatzeko, baliabideak behar direla aldarrikatu dute solaskideek, besteak beste behar handiagoa duten zentroetara baliabide gehiago bideratu daitezen eta aukera berdintasuna bermatzeko ikasle guz-tiek hezkuntza baliabideak izan ditza-

SEGREGAZIOA. Esaten badugu auzoan integratuta dagoen eskola nahi dugula, baina auzoen arabera segregazioa ematen bada, abiapuntuan dago arazoa. Non bizi da baliabide gutxien duen jendea? Non bizi dira ijitoak, non arrazializatuak eta migratzaileak?



AMUGE

ten. Pandemia eta konfinamendu garaian desoreka argi ikusi dela adierazi du Tamara Claveriak, eta pobrezian bizi diren eta ikasteko espaziorik ere ez duten ikasle ugariri ez zaizkiela iritsi behar dituzten baliabideak. “Zentro batzuetan SIM txartel kopuru mugatu bat banatu dute, irakasleen ustez ongien aprobeztatuko zituzten ikasleen artean. Nola da hori posible? Ikasle jakinen eskubiak urratu dituzte berriz ere, aurreikusi dutelako ikasle horiek ez zutela baliabidea behar bezala aprobeztatuko; hori da ikasle ijitoen dagoen irudia”.

Gai honetan irakasleak formatzea inportante jotzen dute solaskideek, baita bizikidetzeta eta aniztasuna nola landu zehaztuko duten planak izatea ere, ikas-tetxearen borondatearen esku utzi ordez. “Irizpide konkretuak dituen gida hezitzailea ongi dator, tarteka birpasatzeko aukera izan dezagun –azaldu du Irati Barriocanalek–. Gatazkaren bat dagoenean, adibidez, begiratu gida eta ebaluatu, ea horko irizpideak jarraitzen ari garen, zerk egin digun ihesi... Ikas-tetxearen organigraman lekua izan behar du gai honek, ez soilik diskurtsoan; batzorde bat, harrera protokolo bat, fami-

liei zuzentzeko irizpide batzuk, ikasleen hizkuntza ezberdinak integratzeko neurriak... Horrek guztiak zehaztuta egon behar du”. Ildo horretan, ijito herriaren

“Inork ez du zalantzan jartzen sistema patriarkala dela gurea, barneratuta ditugula hainbat jarrera matxista, baina ikasgelan arrazakeria presente dagoela diodanean, auzitan jartzen dute hezitzaileek: eurek ez dutela halakorik egiten”

Tamara Claveria

egoerari buruzko diagnostikoa egitea premiazkoa ikusten du Claveriak, ijito ikasleen eskola-ibilbideari buruzko datuekin, errealitate horretatik abiatuta

hezkuntza plan zehatzak garatu ahal izateko.

Gaiari buruzko formakuntza espezifiko irakasleentzat bakarrik ez, ikasleei txikitatik ematea aldarrikatu dute. “Txikitatik sortu behar da kontzientzia, lortzeko adibidez haur *paio* bat izatea beste haur *paio* bati arreta deitzen dio-na, portaera arrazista izan duelako”, dio Claveriak.

NOLA ERAIKI KOMUNITATEA, NOLA INPLIKATU FAMILIAK

Bat egin dute denek: komunitatea da oinarria, aniztasunean hezteko. “Nire familia hona iritsi zenean –azaldu du Claveriak–, *paio*ek eta *ijito*ek elkarri laguntzen zioten, baina jada ez gaude elkarrekin auzoetan eta asko indibidualizatu dira borrokak: norberak berea borrokatzen du, eta hori ez da bidea”. Afrikan erabiltzen duten “ubuntu” hitza ekarri du gogora Dacounak: “Ubuntu esan nahi du ni naizela komunitate baten parte naizen heinean; ikuspegi komunitarioa erdigunean dago. Mendealdean, ordea, oso indibidualista da ikuspegia, pertsonak txanpinoiak bagina bezala, eta ez da erreala, bere baitan

hartuko gaituen komunitatea behar dugulako hazteko”.

Bide horretan, Goian bezalako aisialdi elkarteak eskolaren osagarri direla sinetsita dago Irati Barriocanal: “Ariketa interesgarria da ikastetxeko atea ireki eta inguruan konplize ditugunekin harremanak sustatzea: auzokideak, inguruko elkarteak... elkarrekin bidea egiteko. Banatuta bizi gara eta elkar topatzeko espazioak ezinbestekoak dira elkar-ezagutza bultzatu eta estereotipoak gainditzeko. Gainera, gure aisialdi elkarteak eta oro har hezkuntza ez formalak malgutasun handiagoa eskaintzen du, adibidez familiei harrera lasaiagoa eta informalagoa egiteko eta harreman horizontalagoak eraikitzeke. Sarri, eskola familiekin harremanetan jartzen denean zerbait txarto doalako izan ohi da eta presioa sor dezake hainbat gurasorengan, batez ere hizkuntza menperatzen ez badute edo funtzionamendua ongi ulertzen ez badute. Gu familiekin gauza positiboak partekatzen saiatzen gara,

eta entzuten. Azken finean, guraso guztiek nahi dute onena seme-alabentzat, eta esperientziak esaten digu, halako saiakeren ostean, gurasoek baietz, parte hartu nahi dutela”.

Hezkuntzan, ordea, gainbehera dago familiekiko harremana, Dacougnaren ustez: “Azken buruan, Eskola Kontseilua baino ez da geratzen familiek parte hartzeko”. Barriocanalek aipatu moduan, zailtasunak daudenean bakarrik ez, familiengana harrera egiteko, gauza onak partekatzeko, laguntzeko eta eskolan parte har dezaten sustatzeko ere gerturatzea komeni da. “Eta familiarekin gatazkaren bat badugu, inportantea da ezberdintzea zer den inportantea (non dagoen muga) eta zer ez den hain inportantea eta negoziatu dezakegun familiarekin”, gaineratu du Natasha Ruedak.

Guraso migratzaile askok dituzten bizi eta lan baldintza prekarioak nabarmendu ditu Dacougnak: “Etxe batean egun osoz lanean bazabiltza, ez duzu erraza eskolan parte hartzea, eta

hala ere, gauza bat esango dut: ongi eta atsegin hartzen zaiola sentitzen duen gurasoak bai hartuko du parte. Eta hor denok aterako gara irabazten, hona iritsi garen gutako askok parte-hartzean esperientzia handia dugulako, gure jakintza dakargu eta ekarpena egin dezakegu, ez gara ikustera mugatzen diren pertsonak”.

Esperientzia interesgarria jarri du Ruedak mahai gainean: aniztasun handiko ikastetxe batean, guraso elkarteak berriki ikusi du kolektibo askoren errepresentazioa falta zela eta horri buelta emateko prozesua martxan dute. Gakoa izan da kolektibo baikoitzean erreferentziak lortzea, lotura lana egingo duten gurasoak, kolektibo ezberdinen parte-hartzea bultzatuz eta errepresentazio orekatuagoa lortuz. “Hitz egin, hitz egin eta hitz egin, elkarren berri izatea funtsezkoa da, jakiteko halako gurasori informazioa ez zaiola iritsi eta helarazi behar zaiola, beste hark ez duela ongi ulertu eta laguntza behar duela...”.



GATAZKA. Goian elkarteko Natasha Ruedak erdigunean jarri du ikasleen benetako parte-hartzea eta dena hitz egitea; “gatazka ez da ezkutatu behar, alderantziz, aukera da gertatzen dena lantzeko”.



Online izan da saioa. Goian, ezker-eskuin: Tamara Claverie eta Bea Umbon aurkezlea (Steilas). Behean, Jeanne-Rolande Dacougnak, Irati Barriocanal eta Natasha Rueda.

SEGREGAZIORA KONDENATUTA?

Aurretik aipaturiko guztiak ez du askorako balio, ikasleak burbuilatan heitzen baditugu, jatorriaren eta faktore sozioekonomikoen arabera segregatuta; horrela ezinezkoa da komunitate anitzak loratzea. Tamara Claveriak dio garai batean soilik ijitoentzako eskolak sortzen zituztela, eta gaur egun errealtate hori mantentzen dela, “ez egituraz, baina bai praktikan”. Hizkuntza ereduak eurak segregatzaileak direla adierazi du. “A ereduak segregatzaileak da”, eta Bilboko Otxarkoaga auzoan lortu berri duten eskaera historikoa pozik jakinarazi du: “Azkenik ere D ereduko ikastetxea izango dugu auzoan, baina aldarrikapenak oihartzuna izan zezan honetan ere *paioekin* bat egin behar izan dugu”.

Baliabide ekonomiko gutxiko ikasleak baino ez dituzten ghetto-ikastetxeetara irakasleak sarri desmotibatuta doazela gaineratu du Dacougnak, “*marroia* tokatu zait” pentsatuz. “Horrela bizi duen irakaslea saiaturiko da lehenbailehen zentro horretatik alde

egiten eta irakasle bat bestearen atzetik izango dute ikastetxean, horrek eskola proiektuari eta ikasleei eurei

“ Eskola familiekin harremanetan jartzen denean zerbait txarto doalako izan ohi da. Gu familiekin gauza positiboak partekatzen saiatzen gara, eta halako saiakeren ostean, esperientziak dio baietz, gurasoek parte hartu nahi dutela”

Irati Barriocanal

egiten dien kaltearekin. Azkenean, zailtasunak pilatuz doaz eta gazte hauek ez dituzte ikasketak amaituko, aurre-

tik ondorioztatua genuena errealtate bihurtuko da”.

Claveriak garbi du: bizi garen auzoko eskola da gure seme-alaben eskola, eta berau eskolarik onena izan dadin egin behar dugu borroka. Dena den, ezin dugu ahaztu etxebizitza politikak ere segregatzaileak direla, dio Dacougnak: “Esaten badugu auzoan integratuta dagoen eskola nahi dugula, baina auzoen araberrako segregazioa ematen bada, abiapuntuan dago arazoa. Non bizi da baliabide gutxien duen jendea? Non bizi dira ijitoak, non arrazializatuak eta migratzaileak? Eta auzoren batean kultur-aniztasun handiagoa dagoenean, ikusten dugu aipaturiko kolektiboetako ikasleak iritsi ahala besteak ikastetxetik ateratzen dituztela beste norabait eramateko. Minoria etnikoen ghetto-eskolak ditugu batetik, eta zortzi euskal abizen dituzten haurren ghettoak bestetik. Hori hezkuntza politiken ardura ere bada: bideratu ikasleak ikastetxeetara oreka aintzat hartuz, aukera berdintasuna bermatzeko eta frogatzeko benetan gizarte inklusiboa nahi dugula”. ●

KANARIA HANDIKO MAIZTERREN SINDIKATUA

Porlanak irentsitako uhartean, auzoetatik birjabetza ereiten

“Ez etxerik gabeko jenderik, ez jenderik gabeko etxerik” irakur daiteke Kanaria Handiko Maizterren Sindikatuaren (Sindicato de Inquilinas de Gran Canaria, SIGC) webguneko goiburuan. Kolektiboa 2017an sortu bazen ere Kanaria Handiko Federazio Anarkistaren (FAGC) ekimenez, urte batzuk egin behar dira atzera sindikatuaren esperientzia metaketa eta egituraketa ulertzeko. Etxebizitza beharra dutenengana hurreratzen eta premia horren politizazio lanetan jardun du sindikatuak sorreratik; auzoz-auzoko lana, gertukoa, garatu dute, instituzio eta “legalismoetatik” at. Orain arte ikusgarritasun handirik izan ez duen kolektiboa da, beharbada “ilunpeko” lan horren albo-kaltez. Euskal Herrian etxebizitza, auzo eta zaintza sare kolektiboak loratzen ari diren honetan, Kanaria Handiko Maizterren Sindikatuaren borroka dakargu: klase moduan, partekatzen ditugun problematiken aurrean batzea eta ahalduntzea besterik ez dugulako.

 XABAT PETRIKORENA URANGA  FAGC



Okupatutako La Esperanza komunitatean baturik bertako auzokideak, FAGC-eko kideak eta Gizarte Hezkuntzako ikasleak eta irakasleak.

M-15 mugimenduaren harira, Kanaria Handiko Las Palmas hiri-buruko San Telmo plaza esanguratsuan kanpamentua finkatu zuten bertan biltzen zirenek, Espainiako Estatu-tuko beste hainbat eta hainbat plazetan bezala. Etxerik gabeko jende andanak hantxe topatu zuen aterpea, eta militante eta manifestariekin elkarbanatu zuten espazioa. Baina kanpamentua huster behartu zituzten: militante eta manifestariak haien etxeetara bueltatu ziren, etxerik gabeko jendea berriz, kale gorriara. Testuinguru horretan, Kanaria Handiko Federazio Anarkistak Pensión París deituriko eraikina okupatu zuen, San Telmo plazatik kaleratuak izan ziren etxegabeek aterpea izan zezaten. Kana-



ria Handiak pairatzen duen etxebizitza arazoaren aurrean eta barne eztabaida fase baten ostean, borroka hasi berriari jarraipena emateko konpromisoa hartu zuen federazioak. Bi oinarriren inguruan eratzen da kolektiboaren estrategia: beharrian baten asetzeta, etxebizitza-eskubidea bermatzea alegia; eta ondoren, behar hori politizatzea. Pensión Paríseko lehen okupazio esperientzia hartatik 2017ra arte, federazioak okupazio saiakera ugari gauzatu ditu, batzuk besteak baino arrakastatsuegoak. Urte horretan sortu zen Kanaria Handiko Maizter Sindikatua, federazioak okupatutako eraikinetan bizi diren komunitateak lagundu –judizialki batez ere– eta babesteko helburuarekin.

PORLANEZKO UHARTEA

Kanariar Uharteek dute Espainiako Estatuko langabezia eta haur-txiro tasa handiena, eta bigarren soldatarik baxuena. Aldi berean, etxegabetzeen indizea ikaragarri altua da: pandemia aurretik 900 etxegabetze eman zitezkeen hiru hilero. Uhartetako etxebizitza hutsen kopurua, aldiz, 138.000 ingurukoa da. Horri, batu behar zaizkio gentrifikazio prozesu gero eta ugariagoak, turistentzat bideratutako zerbitzuak, espekulazio urbanistikoa, eta oro har hirugarren sektorearekiko dependentzia ekonomikoa. Hein handi batean, uharteak turisten gozamenarako espazio bilakatu dira, eta Kanaria Handia horren adibide garbia da. Kanaria Handiko Kabildoak (Kanaria uharteetako bakoitza

governatzen duen erakundea) orain arte emandako erantzuna etxebizitza gehiagoren eraikuntza izan da, beraz argi dago instituzioetatik espekulazioaren eta etekinaren aldeko apustu hutsa egin dela. Porlanez estali dituzte erabaki ez eraginkor instituzionalek eragindako okerrak.

Arazoaren ondorioez argi mintzatu zaigu sindikatua: “Auzo batera hurbiltzen zaren heinean gabezia ugari ikusiko dituzu. Zirkuitu turistiko ofizialetik ateraz gero, miseria ugari ikusiko duzu, guk ikusten duguna alegia. Hurbiltzean ikusten dugu jendea bizi dela kobazuloetan, kontagailu geletan, autoetan... Orduan, lehenbizi FAGck eta gerora sindikatuak planteatu dutena egoera leheneratzea da: etxebizitzak berreskuratzea”.

EKINTZA ZUZENA ARDATZ

“Etxebizitzarena funtsezko aukia izanik, uste dugu berau berreskuratzeko aukerarik onena ekintza zuzena dela. Horrela hasi ziren komunitateak, horrela hasi zen FAGCen etxebizitzaren aldeko borroka”, azaldu dute sindikatuko kideek.

Egun, zazpi komunitateetan parte hartzen du sindikatuak, guztiak Kanaria Handiko uhartean: Telde herrian dagoen La Ilusiónen, Arucas herriko Los Girasolen, Terorko komunitatean, batez ere migratzaileak jasotzen dituen hiriburuko Las Masíasen, Juan Grande herri inguruetan dauden barrakoietako komunitatean, San José del Alamokoan eta Guían dagoen La Esperanzan. Azken hori da, behar bada, esanguratsuen. Komunitateak autogestioaren bitartez kudeatzen dira, eta sindikatutik zein federaziotik antolaketa ereduak proposatzen badira ere, komunitateek dute azken hitza: “Bizilagunak antolatu eta erabaki dezatela komunitateko eguneroko auzietan nola jardun. Ez gara han bizi, beraz ez dugu ezer esateko. Egia da nolabaiteko itun asoziatibo bat sinatzen dugula, minimo batzuk errespetatu daitezen, eta errespetatzen ez badira sindikatua zuzenean aldentzen da. Babes juridikoa emateaz arduratzen da batik bat sindikatua. Etxegabetze abisu baten aurrean, edo antzeko problematika baten aurrean, orduan esku hartzen du sindikatuak”.

Hainbat modutan antolatu dira komunitateak. Proposatzen zitzairen eredu asanblearioaren bitartez batzuetan, non komunitatea osatzen duen orok rol aktiboa duen kudeaketan, erabakiak hartzean, eta abar. Beste batzuetan berriz, erabaki eta parte hartze ezaren ereduari jarraitu diote; hau da, rol aktiboa pertsona bakarrak hartzen duen antolaketa moduari. Aipagarria da komunitateak maiz konturatu direla pertsona konkretu baten ardurapean dauden ardurak haiek ebatzi ditzaketela, martxan duten kudeaketaren ereduak zalantzan jartzeko gai direla erakutsiz. Esan daiteke zentzu horretan gauzatzen dela sindikatuak oinarritzeko duen subjektuaren politizazioa; komunitatearen politizazioa, alegia.

PANDEMIAZ GEROZTIK, “ALOKAIRUEN GREBAN”

Etxebizitza esparruan dauden miseriak are gehiago azaleratu diren honetan, sindikatua 2020ko martxotik ari da alokairu gehiegikerien kontra borrokan, eta apirilaren 1ean inflexio puntua izan zen “alokairuen greba” aldarrikatu zuen.

Maizterren aldeko aholkularitza lanean dihardu gau eta egun: mugikorreko dei zein mezu sarrera-ontziak dira horren isla. Hileroko alokairua are itogarriagoa bihurtu da pandemiaren eraginez ezarritako neurrien ondorioz, eta etxebizitza

“ Etxebizitzarena funtsezko aukia izanik, uste dugu berau berreskuratzeko aukerarik onena ekintza zuzena dela”

Kanaria Handiko Maizterren Sindikatua

ordaindu ezinik, jende andana egoera prekarioan eta etxegabetze arriskuan dagoela salatu du sindikatuak. Gainera, maizter asko ezin dira Espainiako Gobernuaren diru-laguntzen onuradun izan, ez baitute horiek jasotzeko eskatzen diren baldintzak betetzen.

“Alokairuaren ordaina etetea exijitzen genuen grebarekin, [Espainiako] Gobernuak 11/2020 Lege Dekretua aplikatu aurretik. Baina gobernuak jabeen aldeko hautua egin zuen”, azaldu du sindikatuak. Dekretu horretan alokairuaren ordainketa “errazteko” baliabide batzuk ahalbidetzen dira, baina soilik jabe handien jabetzei aplikatzen zaizkie. Hau da, Espainiako Gobernuak bederatzi jabetza edo gutxiago dituen etxejabeak jabe txiki deritzo, eta aldiz, hamarretik gora duenari jabe handi. Dekretuak azken horien jabetzetan du eragina, eta hortaz soilik jabe handiei ordaintzen zaizkien alokairuei aplikatzen zaizkie ordaintzeko “erraztasunak”. Abenduaren 22an 37/2020 Lege Dekretu berria onartu zuen gobernuak; apenas egon da aldaketarik, baina horretan ere jabe handien aldeko konpentsazio ekonomikoak nagusitzen direla salatzen du sindikatuak: “Oraingoan okupak hartu dituzte kontuan, baina betiere etxejabe handia baldin bada. Arazoa da administrazioak duen etxebizitza-publikoen parkea ez dela nahikoa alternatiba duina eskaintzeko. Ikusiko dugu noiz arte irauten duen, sostengaezina delako”.

2020 urte amaieran egun batzuetako atsedena hartu zuen sindikatuak, urteko joan-etorriaren inguruan hausnartzeko.



SIGC-eko kide bat bere haurra besoetan. Etxebizitza arazo baten aurrean, alternatiba habitazionala eskaini zitzaion La Esperanzan.



Urtarrilean lau urte bete ditu kolektiboak eta parte-hartzeko gogotsu dauden kide berriak gehitu zaizkiola eman du aditzera. Landatutako hazia hasia da porlanaren artean loratzen.

KOMUNITATE ETA AUZO AHALDUNDUEN BIDETIK

Urteetako esperientziak erakutsi dio sindikatuari komunitateen funtzionamendua eta antolaera hobea dela kanpo-gatazka bat dagoenean, izan udalarekin, Poliziarekin, edo bankuekin. Guztiok partekatzen duten arazoaren aurrean batzea besterik ez dutenean, orduan berrindartzen da komunitatearen osasuna. Hargatik, sindikatutik garbi dute gatazka erabili behar dela komunitatea ahalduztzeko, eta horretarako ezinbestekoa dela giza-ehuna sortzea. “Jendea elkar ezagutu dadila, ulertu dezatela problematika bera pairatzen dutela. Azken finean, arazo komunak batzen ditu, hori da nabarmendu behar dena. Uste dugu loturak sortzeko modua gatazkaren bitartez dela, gatazkarantz joanez”, diote.

Etxebizitzaren problematikaren inguruko gatazka abiapuntua litza-

teke aipatutako giza-ehuna sortzeko, jendea elkar ezagutzeko haien auzo eta komunitateetan. Ehun hori saretu ahala, norbanakoaren politizazioa ere ematen da, nolabaiteko ahalduntze indibiduala.

“Problematika komuna partekatzeak kontzientzia komunitarioaren garapena ekarri dezake, eta hori sindikatuak kudeatzen dituen komunitateetan azaleratu daiteke”, deritzo sindikatuak.

Etxebizitzaren problematika klase perspektibatik aztertuta, ikusten da nola eragiten duen berdin-berdin Kanaria Uharteetan zein Euskal Herrian. Sistema heteropatriarkal kapitalistak sortzen dituen miseriek batzen gaituzte, eta horren jakitun ahalik eta azkarren egin behar gara: antolatu eta gatazkarantz jotzeko, ahalduntzearen bidean betiere. Kanaria Handiko Maizterren Sindikatuak ildo horretan egiten du lan: problematika konkretua seinlatu eta horren aurka egin. Ez militantez osaturiko taldeekin, baizik eta auzoko jendeak osatzen dituen komunitateekin, ahalduntze bidean dauden subjektuen indarrarekin. ●



#RUYMANLIBERTAD

Martxoaren 24an abiatu zen FAGC eta SIGC kolektiboetako partaide Ruymán Rodríguezaren aurkako epaiketa, ustez 2015an guardia zibila bati ostikoa emateagatik, legez kanpo atxilotua izan ostean torturatu izaten ari zen bitartean. Fisikaltzak urtebete eta sei hilabeteko kartzela zigorra eskatzen du, 770 euroko isunarekin batera. FAGC eta SIGC kolektiboetatik argi dute errepresioak lotura zuzena duela haien jardunarekin, Kanaria Handiko *statu quo*-a agerian utzi eta hasarerrarazi dutelako. Muntaiak poliziala dela salatu eta Ruymánen aldeko elkartasun deia egiten dute.

EKUADOR

XXI. MENDEAN ERE KOLONIALISMOAREN ATZAPARRETAN



Apirilaren 11n egingo diren presidentetzarako hauteskundeak bigarren erronda dela-eta, behe mailako titularren bat eskainiko zaio Mendebaldeko albistegietan Ekuadorreko Errepublikari –azkenak 2019ko matxinadari eman zitzaizkion–. Hautagai batek ala besteak irabazi, markatuegiak datoz kartak oraingoan ere joko horretan. Azpiratutako gehiengoarentzat ez dago esperantzarako tarte handirik.

JUAN GOROSTIDI BERRONDO

Zaila da Ameriketako herrialde bat ez irudikatzea –izan Arkansas, Honduras edo Ekuador– ez bada kartografoek gudan marraztu duten kontinente erraldoi baten “probintzia” gisa. Beste hainbat lekutan bezala, iparralde aberatsa eta hegoalde pobre eta “atzeratua” irudikatzen ditugu, eta hegoalde atzeratu horretatik ailegatzeko zaizkigun berriak ere anekdotikoak izaten dira: katastrofeak ez direnean, gure betaurrekoekin begiratzen ditugun gertakizun politikoak (hauteskundeak, estatu kolpeak, matxinadak...).

Azpiratuekin sinpatiak sentituta ere, gure buruek kolonizatuta jarraitzen dute eta mundu haietako errealtatea oso urruti geratzen da. Egun bakar batez berdindu dezakegu distantzia geografikoa bidaia komertzial edo turistikoaren bidez, baina horrek areagotu baino ez du egiten distantzia, hurbiltasunaren estalpean. Bestalde, gero eta sarriagoak dira gure artean herrialde haietatik lanera eta bizitzera etorritakoak; garbi dago zein maila sozialetan geratzen diren langile eta etorkin horiek.

Ekuador izan liteke aurrekoaren adibide garbia: lurraldea txiki samarra da (Frantziaren azalera erdikoa eta 17 milioi eta erdi biztanlekoa), mugako dituen iparraldeko Kolonbiarekin (lau aldiz

zabalagoa eta biztanlerian hirukoizten duena) edo hegoaldeko Perurekin konparatzen badugu (bost aldiz zabalagoa eta bikoitza biztanlerian). Gainera, bere historian, iparreko eta hegoko “erraldoi” horien aurka definitu behar izan du bere burua: “Kolonbia Handia” Ekuador bereganatzen saiatu zen, eta Perurekin etengabe izan dira gerrak eta liskar teritorialak, XIX. mende hasieran estatuko sortu zirenetik; azkena XX. mendeko 90eko hamarkadan.

Noiz edo noiz hango berriren bat isurtzen da geure informatiboetan: pandemiaren irudi beldurgarriak Guayaquil, esaterako, edo sarraski gertatu berriak hango kartzelatan. Titulu gehiago eragiten dute Mexiko DF, New York edo Buenos Aires bezalako megapoliek, baina perspektiba beretsutik irakurtzen ditugu.

ARAUZ-LASSO LEHIA

Apirilaren 11n egingo da hauteskundeak bigarren erronda, Andrés Arauz (36 urte) eta Guillermo Lasso (66 urte) nor baino nor. Arauz, Rafael Correalen oinordekoa da (2007-2017 bitartean presidentea; Herriararen Iraultzaren Mugimenduaren bultzatzailea), eta Lasso, eskuindar petoa (bankaria, Nazioarteko Diru Funtsaren morroia, OPUSekoa, Guayas-Guayaquil eskualdeko gobernadore ohia, Ekonomia ministro izandakoa eskuindarrekin). Bigarren erronda horretara ailegatzeko Lassok, Yaku Pérez indigenarekin lehiatu behar izan zuen,

biak oso pareko botoetan, baina Pérezek iruzurra salatu zuen. Salaketa hori 20.000 akta faltsutuen frogak gisa aurkeztu zen tribunaletan, baina ez zen onartua izan... Martxo bukaerako eztabaida publikoan Arauzek berak onartu zuen iruzurra Lassori ondorengoa aurpegiratu zionean: “Beste batekin beharko nuke une honetan eztabaidatzen, ez zurekin”.

Nabarmena zen Yaku bezalako batek ez zuela lekuri lehia presidentzialean, ez oraingoan behintzat. Berak gidatzen duen Pachacutik mugimenduak boto nuloa eskatu du hauteskunde hauetan, bozketan parte hartzeko era gisa; horrela, boto nuloak bi alderdi nagusien botoak baino gehiago balira, hauteskundeak errepikatu beharko lirake. Ia ezinezkoa da halako zerbait gertatzea, baina Pérezek hirugarren bide gisa definitu du mugimendua.

Baina hauteskunde hauek hango errealtatearen oso zeharkako adierazle bat baino ez dira, eta nahikoa da kandidatek datuen diskurtsoak entzutea antzemateko “errealtate paraleloa” marrazten dutela, egitate gordinetara promesa hapatu eta esperantza faltsuekin estaltzeko. Nahikoa gendake azken hilabeteetako berriak zerrendatzea errealtatearen ezaugarri askoz ere sinesgarriago batekin tupust egiteko: pandemia uzten ari den arrastoa, esaterako, Guayaquil eta Quito hiri nagusietan hildakoak kaleetan; ospitale publikoak bitartekorik gabe eta pribatuak ateak ixten. Edo hiri nagusietako kartzelatan orain hilabete izan-



Estraktibismoaren etekinen ehuneko txikia geratzen da lurraldean –eta horren parte handiena maila guztietako jauntxo eta agintarien eskuetan–; gehiengo handia atzerriko ustiatzaileek eramaten dute.

TIEMPO MINERO

dako matxinada sinkronizatuak, non 80 preso erail zituzten, kartzeletako egoera izugarria agerian utziz.

Pobreziak eta desberdintasunak goia jo dute azken hilabeteetan: datu ofizialek diote “pobreak” eta “muturreko pobreak” %34tik %47ra pasa direla urtebetean. “Pobreak” pare bat dolar edo gutxiago dute egunean bizitzeko, eta “muturreko pobreak” bakarra. Batez besteko zenbaki horiez gain (%47ko pobrezia, alegia) kontuan hartu behar da %70 dela pobre landa inguruetan, non %2ak baino ez duen “enplegu osoa”. Enplegu oso bat da, hizkera ofizialean, bere lanagatik gutxieneko soldata legala, -400 dolarretan ezarria-gainditzen duena.

Yaku Pérezek gidatzen
duen Pachacutik
mugimenduak boto
nuloa eskatu du
hauteskunde hauetan,
bozketan parte
hartzeko era gisa

Bestalde -horra agintarien jarria ulertzeko gakoetako bat- Ekuadorrek 2008an onartu zuen, eskubideen aitortzari dagokionez, munduan egon litekeen konstituziorik aurrerakoiena. Onartzen dira jendearen eskubideak eta naturarenak ere (10. artikulua); uraren zentraltasuna 12. artikuluan dago onartuta, baita elikagai-subiranotasuna ere, esaterako. Sustantzia kutsagarriak espreski debekatuak dira (15. artikulua), eta presoan, gutxiengoen eta gainontzeko kolektibo zaurgarrien eskubideak modu zehatzean defenditzen dira. Indigenen inguruan dio, “lur komun jabetza preskribaezina gordetzea, besterendu ezinak izango baitira, enbargaezinak eta zatiezinak. Lur horiek ez dute tasa eta zergarik ordaindu beharko”. Gainera, “kultura, tradizioa, istorio eta asmoen duintasuna eta aniztasuna bermatzea hezkuntza publikoan eta hedabideetan; bitartekoak sortzea komunikazio soziala beren hizkuntzetan egin ahal izate-



CNN



EL DIARIO



ko, eta gainerako hedabideetara sartzea inolako bereizkeriarik gabe” (4. kapitulua). Hezkuntza elebiduna etab. Paradisuko arautegia dirudi, hitzez-hitzez, lerroz-lerro.

Esan bezala, 2008an onartu zen konstituzio berri hori Rafael Correaren hauteskunde kanpainaren ardatz bihurtuta, aurreko 1998koa gainditzeko asmoz. Correaren ondorengo hamar urteko presidentziapean milaka landa-eskola suntsitu ziren eta hasieran alde izan zuen mugimendu indigenistak aurre egin behar izan zion segidan, estraktibismoa

Andrés Arauz correista (behean) eta Guillermo Lasso eskuindarra (erdian) izango dira lehian apirilaren 11ko hauteskundeetan. Lehen itzulian Yaku Pérez (goian) aritu zen Lassorekin; Pérez zihoan irabazle gutxigatik eta, azkenean, Lassori eman zioten bigarren postua. Pérezen mugimendua den Pachacutik iruzurra salatu du eta bigarren itzuli honetarako boto nuloa eskatu du.

eta meategi suntsitzailen ustiaketa ugaldutako baino ez baitzen egin. 1809ko Ekuadorren independentziazik hona hogei-tik gora konstituzio onartu dira. Mundu guztia ohituta dago paper bustira eta

politikari eta gainontzeko eliteen hitz hanpatuen jatorria.

MONETAREN DOLARIZAZIOA

Hego eta Ertamerikaz aritzera-koan, ohikoa dira hango pobreziaz, muturreko ezberdintasunaz eta ustelkeriaz entzutea. Ez ziren XVI. mendeko kolonialismo europarrarekin hasi. Aurreko inperioek (inkak, maiak, aztekak...) bide beretik jo zuten gainontzeko jendea menperatzeko orduan, baina mugarri izan ziren europarrak. Haienztat, Ameriketako lurak eta jendeak –Afrikatik ekarritako esklabuez ahaztu gabe– garatzen ari ziren kapitalismo izenez ezagutzen dugun sistemaren gauzatzeko aberastasun iturri baino ez ziren. XIX. mendeko independentziek ez zuten funtsean egoera aldatu eta XX. mendeko bigarren erdia AEBen “atzeko patio” bihurtu ziren hegoaldeko herrialdeak.

XXI. mendera etorritz eta Ekuadorreko kasu partikularrean, bi gertakari dira ezinbesteko hango gorabeherak ulertzeko. Lehena, aurreko mende bukaeran kontrolik gabe zabaldu zen krisi ekonomikoari lotua da, eta hari erantzunez bertako eliteek hartutako neurria: ordura arteko moneta nazionala ezabatu (“sukrea”, Antonio Sucre, Venezuelen jaio eta Kolonbian hildako jeneral libertadorearen ohorez sorturikoa), eta AEBetako dolarra indarrean jartzea 2.000. urtean. Aurreko hilabeteetan hiperinflazio prozesua bizi izan zen: aste bakarrean 7.000 sukretako dolar baten balioa 19.000ra igaro zen. “*Feriado bancario*” ezarri zuen gobernuak (Argentinako “korrallitoaren” estilokoa), hots, bankuen itxiera eta haietatik dirua ateratzeko debekua; baina neurri horrek egoera zailtzea baino ez zuen ekarri: milioika pertsonak ikusi zuen euren aurrezki guztiak ezertan geratu zirela. Sukrea-dolarra kotizazioa 28.000koa zen 1999ko abendurako; bankuek hondoa jo zuten eta erreskatatu zituzten.

Baina horrelakoetan ohikoa den bezala, eliteek gertatu aurretik zuten horren guztiaren berri, eta milioika dolar bideratu zituzten leku seguruagotara. Lau milioi inguru ekuadortar (populazioaren laur-

dena ia) ezer gabe geratu eta atzerriako bidea hartu zuen: AEBetara eta Kanadara, Kolonbiara eta Venezuelara, Espainiara eta Italiara. Diruaren ihesa ez da geratu geroztik, pobreen eta aberatsen arteko arrakalak gora egiten jarraitu du. Dibitsen lehen iturria petrolio da, bigarrena emigrante pobreek haien familiak sostengatzeko atzerritik bidaltzen duten dirua.

Monetaren inguruko soberania galtzeak estatuari erabateko murruntza dakarkio, baina ez gara hemen ekonomiaren jargoi esoterikoetan sartuko. Nahikoa da pentsatzea AEBetako batez besteko soldata Ekuadorreko oinarritzkoaren hamar aldiz altuagoa dela (eta oso gutxik kobratzen duela “hainbeste”): bertako ondasun guztiak mauka dira Iparraldeko edozeinentzat, baita guretzat ere.

CORREISMOA

Ekonomiatik politikara jauzi eginenez –hori posible den neurri txikian– XXI. mendea markatu duen fenomenoak “correismoa” izan da. Rafael Correa presidentea Latinoamerikan zehar zabaldu zen gobernu progresisten artean kokatu zuten, Bolivian Evo Morales, Brasilen Lula Da Silva, Venezuelen Hugo Chavez edo Argentinan Néstor Kirchner eta beste hainbaten artean osaturiko multzo heterogeneoan, “XXI. mendeko sozialismoa” izenarekin ezagutzera eman dena.

Correa presidente izan zen hamarkadan (2007-2017) hainbat aldaketa gertatu ziren estatuan –aipatu dugu konstituzioarena– eta jende askoren atxikimendua ere lortu zuen. Bere presidenteorde izandakoak (Lenin Morenok) irabazi zituen ondorengo hauteskundeak, nahiz eta berehala traizioa gauzatu eta eskuindarren aldera pasa zen haien politika neoliberalak gauzatzeko. Oraingoan ere ez da harritzekoa izango Correak ezarritako hautagaiak, Andrés Arauzek, irabaztea datorren astekoak. Correismoak jarraitzaile sutsu asko ditu, baina baita etsai amorratuak ere, eta ez soilik elite ekonomikoetan.

Presidentzia lortu eta berehala Txinara jo zuen Correak, haiekin kontratuak firmatzera. Eta badaki-

ZEIN AZALERA DU PORTUGALEK?

Orain dela urte batzuetako pasadizoa: heldu naiz bidaia turistikoan Salvador de Bahiara, Brasilen, eta hartu dut txalupa bat Morro de São Paulora, Tinhaíre irlan. Leku paradisiakoa da hura, autorik edo beste ibilgailu motordunik gabekoa: bideak hareazkoak, jendea oinez edo astoen laguntzarekin; ur garden eta epeleko hondartzak, jende atsegina. Kaian bertan hartzen zaituzte maleten garraiolaria, ostatu eskaintzan. Bertako faroan aurkitu dut behar nuen kontaktua: Iranhildo. Mutiko gaztea, aurpegi argikoa, beltza, bertako guztiak bezala. Berak erakutsi dit ingurua: buztin arrosaren iturriak, basoko ur jauziak, inguruko ikuskizunak. Nahi badut, gaueko festak ere eskaini dizkit.

Bertako gehienak –Iranhildo kasu– ez dira turistak hondartzan edo kaitik hondartzara doan kale apainduan bizi, barrualdean eraikitako auzo pobreen baizik. Eta argazkiak bidaltzeko helbidea eskatu diodanean –paperean errebelatuak, mugikorrak has-tapenetan zeuden, artean– ez daukala esan dit, bidaltzeko hotelera faborez. Baina egin didan keinuagatik eta bideko erroteruak seinatu eta irakurtzeko moduagatik ere, irakurtzen eta idazten ez dakiela iruditu zait. Eta lotsatu egiten duela horrek.

Kontatu dit maitemindu omen zela behin finlandiar gazte batekin eta Finlandia non dagoen galdetu. “Baina nola biziko haiz han, hitz bakar bat esaten ere jakin gabe, eta negro bakarra zuri guztien artean?”, bota diot, txantxetan. “Bapo bizi haiz hi hemen!”.

Eta Finlandia non dagoen galdetu didanean marraztu dizkiot Amerika eta Afrika paper batean, nola edo hala, eta Afrikaren gainean Europa. Ezin sinesturik geratu da Portugalen txikitasunarekin, Brasil osoa baino askoz zabalagoa behar zuenean. Hala baitzen Iranhildoren buruan.

Geografia kontu soila ote den galdetu nion neure buruari ala beste zerbait, askoz ere sakonagoa, askoz ere maltzurragoa. Eta bai, erantzun diot, eskolatua izan arren, Iranhildo bezalakoak garestu iruditu zait niri ere: guk ere askoz handiagoa irudikatzen dugula geure lurraldea, geure kontinentea. Eta Amerika txiki bat dugula barruan, mapetako irudien geruza ahulak apenas es-taltzen duena: eskasak eta mengelak dira guretzat hango jendeak, hango lurraldeak. Eta espero dugu haiek ere pentsamendu sakon hori ondo barneratua eduki dezaten; ez daitezen inoiz jabetu geure ahuldadeaz, geure nagusikeria ustelaz.

ABYA YALAN EZ DAGO INDIGENIK

Estatistika ofizialek diote %8 batek hartzen duela bere burua indigenatzat Ekuadorren; gainontzekoak, zuriak edo mestizoak direla. Baina ez da hori jasotzen den inpresioa hango hiri eta bazterretan ibilita. Hiru hiri nagusietan ibilia naiz orain gutxi: Quiton, Guayaquilen eta Cuencan; baita oihanean eta kostaldean ere, eta %8 hori zurieta dela iruditu zitzaidan. Zer dela eta desfase hori?

Arrazoia oso sinplea da: mendeetako arrazismo barneratua. Hain da mespretxatua, zokoratua eta gaizki tratatua bertako jendea, gutxiengo kontziente batek baino ez duela bere burua, harrotasunez, "indigenatzat", jatorrizko herritaratzat. Gainontzekoek ukatu egiten dute, estaltzen saiatzen dira. Eta hori da egoera inguruko estatu eta lurralde gehienetan: Kolonbian, Perun, Bolivian, Venezuelan; baita Mexiko eta Erdialdeko Amerikan ere. Hainbat lekutan afroamerikarrak ere ugariak dira –ekialdeko kostaldean, baina baita Pazifikoko aldean ere eta, zer esanik ez, Brasilen, Antilletan edo AEBetan.

Ekuadorren, hamalau nazionalitate eta hizkuntza aitortzen ditu bertako konstituzioak, baina egoera plurinazional eta eleanitza ez da inon ere azaleratzen, ez bada mendietako komunitateetan, non estatua oso ahula den. "Eskubide aitortuen" eta egunerokotasunaren arteko arrakala hain da sakona, lege eta deklarazio horien benetako funtzioa agerian uzteko baino ez duela balio.

Nork ezagutzen eta erabiltzen du gure artean kontinentea izendatzeko bertako jatorrizkoek aukeratutako izena, Abya Yala, alegia? "Heldutasunezko Lurraldea" esan nahi du horrek, baina Amerika beste zerbait da: kolono europarrek bortxaz eraikitako ideia eta errealitatea; herritar askorentzat oraindik ere benetako "amerikanoak" estatubarruarrak dira.

Rafael Correa
2007tik 2017ra izan
zen Ekuadorreko
lehendakari
–karguan jarraian
luzeen iraun
duen mandataria
da– eta Arauz
sostengatzen du.



LAPATILLA.COM

gu nola dabilizan txinatarrak munduan zehar: likidezia premia larrian dauden estatuen zorrak beren kargu hartzen haien ondasunen truke: baliabide mineralak, azpiegiturak, kontratu komertzialak... Hori guztia opakotasun erabatekoan eta pizten diren erresistentzia guztiak zapalduz. Gogoan ditut aurtengo hauteskunde kanpainen atzerriko ezkertiar baten adierazpenak: "Zer nahi dute estraktibismoaren aurkakoez, ondasun horiek guztiak lurpean utzi aurrrerago kapitalistek baliatu ditzaten? Hobe dugu geuk aprobetxatzea herriaren onerako".

Gai hau zabalago tratatu nuen 2019ko urriko LARRUNen, baina laburki esanda, operazio hauetan oso ehuneko txikia geratzen da lurraldean –eta horren parte handiena maila guztietako jauntxo eta agintarien eskuetan–; gainontzekoa ustiatzaileen patriketara doa, lurren eta populazioaren gehien-goarentzat hondamendia eta miseria utziz. Petrolio eta meatze esplotazio berriak oso denbora laburrean garatzen dira egun, eta haien ondorio suntsigarriek ez dute itzulerarik izaten.

Correa inongo disimulurik gabeko estraktibista izan zen, eta parean jarri zitzaizkion mugimenduen aurkako oldar gupidagabea erakutsi zuen –eragindako heriotzak barne–. Baina hori ez da haren alde ilun bakarra: matxista oldarkorra –"lodikote nazkagarri horietaz" aritzen zen publikoki–, arrazista nabarmena eta ustela ere bada: saldo bat pleitu ditu diru lapurretengatik eta, bertako agintarien tradizio zabalari eutsiz,

hanka egin zuen atzerrira boterea utzi behar izan zuenean. Pobreen artean pobreentzako laguntza zuzenak ere bultzatu zituen; hori izaten da lehenetako neurria bere estiloko agintarien artean: arpilatzetik irabazitako zati txiki bat haiengan zabaldu atxikimendua irabaziz. Ez daukat ezer limosnen aurka, ez bada amarru politiko zikina iruditzen zaidala agintari handikien eskuetatik datorrenean.

Ekuadorreko datu
ofizialek diote
"pobreak" eta
"muturreko pobreak"
%34tik %47ra pasa
direla urtebetean

Azken egunetako notizia: Andrés Duarazo, Llantahuaycoko (Azuay) lurraren eta uraren defentsan ekintzailea erail dute bere etxean martxoaren 17an.

Ez naiz sartuko etorkizunerako pronostikoetan. Ez litzateke gutxi izango ohiko betaurrekoak erantzi eta, modu lanbrotsuan bada ere, Ekuadorreko jendea aurreiritzi gutxiagorekin begiratzeko eta entzuteko gai izango bagina. ●

LAU GASTEIZTARREN BIZIPENAK

Nork bere hizkuntzan ere bizi nahi

Saio berezia *Hitz Adina Mintzo* zikloaren barruan. Lau gasteiztar ziren hizlari, lau hizkuntzatan. Bata ari zen bulgarieraz; pularreraz bestea; woloferaz hirugarrena; kitxueraz azkena. *AnHitzak*, Gasteizko hizkuntza aniztasunaren aldeko proiektuaren ondorio izan zen saioa.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO

Amazigera, kurduera, sorabiera, lakota, nasa yuwea... aurrera doa hango eta hemengo hizkuntza gutxituak ezagutzeko *Hitz Adina Mintzo* zikloaren 6. ikasturtea Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean, Beñat Garaio eta Ainhoa Moron koordinatzaileek gidaturik. Inondik ere, saio guztiak ez dira berdinak, eta tartean bada ezusteko eta berezirik. Horietakoa izan zen urtarilekoa, *AnHitzak* ekimenari buruzkoa, Gasteizen den hizkuntza aniztasuna ikusarazi duen proiektua.

2016an hasi zen oinez *Anhitzak*, Gasteizko Udalaren Euskara Zerbitzuaren eskutik eta Topagunea lagun duelarik. Hirian bizi duten hizkuntza aniztasuna balioan jartzea du helburu proiektuak, “bertako kaleetan euskaraz eta gaztelaniaz gainera, asko baitira egunero erabiltzen diren mintzairak”. Orain bost urte egin zuten lehen topaketa, eta, orduan, elkar ezagutzeko hainbat dinamika baliaturik, hizkuntza aniztasunaren inguruan gogoeta egiteko erabili zuten tartea, nork bere jatorrizko hizkuntzatik eginez, heldu eta gazteak bilduz, eta haurtzaindegi zerbitzua ere antolaturik. 2020ko urrian egin nahi zuten bigarren topaketa, baina, jakina, atzeratu behar izan zuten... Alabaina, *AnHitzak*-eko kideek hilero egin ohi dituzte bilerak.

Aipatu bigarren topaketaren eguna heldu bitartean, *Hitz Adina Mintzo* zi-



Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxean lau hizlariak. Ezkerretik eskuinera Isabel Sánchez (Ekuador), Iliyan Sabotinov Alendarov (Bulgaria), Issa Sambe (Senegal) eta Dienabou Bah Bah (Ginea Konakry).

kloaren barruan hitz egin zuten *AnHitzak* ekimeneko lau parte-hartzailek eta haren koordinatzaile Ruben Sanchezek. Honek, hala ere, bideo bat bidaliz esku hartu zuen saioan, COVID-19 gorabehera bihurriak tarteko konfinaturik baitzen. Honenbestez, gorago aipatu Beñat Garaio zuzendu zuen saioa. Ruben Sanchezek esan zuenez, “Gasteizko kaleetan 50 hizkuntza baino gehiago erabiltzen dira,

eta *AnHitzak*-en nahia da aniztasun horren balioa aitortzea. Garai batean, kasik hizkuntza bakarra zen Gasteizen. Joan deneko 30 urtean euskarak bidea egin du, eta, bestalde, hizkuntza panorama ere franko aldatu da. Orain hizkuntza gehiago dira Gasteizen, eta hori berri ona da, hizkuntzak maite dituztenentzat, oro har, eta euskararentzat berarentzat ere bai. Aniztasun hori sekulako aukera da

hizkuntza guztientzat, arazo berdintsuak baitituzte denek ere". Hizkuntza handi ez direnen patuaz ari zen Sanchez, eta, partikularzki, transmisioaz. "Guretzat bezain onuragarri da haientzat hizkuntzaren eta kulturaren transmisioari balio ematea", esan zuen.

Bederatziz hizkuntza komunitatek parte hartzen du *AnHitzak*-en, sarean esekia duten aurkezpen bideoan ageri denez, eta lau izan ziren *Hitz Adina Mintzo* zikloari zegokion hitzaldian: bulgariara, pularra, wolofera eta gaztelania.

BULGARIERARI BALIOA EMANEZ

Gasteiz-Rodina elkarteko buru Iliyan Sabotinov Alendarov izan zen lehen hizlari. Azaldu zuenez, 2015ean heldu ziren Gasteiza, eta arabar hiriburuan ez dira asko ere. "50en bat familia, 300 lagun gutxi gorabehera. Euskal Herrian, bulgariarrak gehiago dira Iruñean, eta askoz gehiago Espainiako hiri handietan, Bartzelona, Madril eta Valentzian, adibidez". Askok ala gutxi, elkarkea osatua dute eta beren seme-alabei bulgariar kultura, hizkuntza, historia eta folklorea transmititzeko lanean ari dira. "Gure seme-alaba guztiz gehienak hemen sortuak dira, euskaraz eta gaztelaniaz hitz

egiten dute berak bakarrik daudenean, bulgariarari balioa ematen laguntzen digu *AnHitzak* proiektuak". Hargatik parte hartzen dute bertan.

Bulgariaren historia eta geografiari buruzko zertzelada zenbait tartekatu zituen hitzaldian Sabotinov Alendarovek, hemen ondo integratu nahi dutela esanez, eta, horretarako, Bulgariako kultura ezagutzea komeni zaiela beren ondorengoei. "Transmisioa da gure helburua, eta nik aholku bat bera emango nieke hona bildu garen hizkuntza guztietako partaideei, haien jatorria zeinahi dela ere: errespetatu tokian tokiko kultura, eta irakatsi geurea. Horixe dugu elkarbizitzaren oinarri eta funtsa", esan zuenez.

Bestalde, Bulgariako Kultura Ministerioak Gasteiz-Rodina elkarteari hainbat material bidaltzen dizkiola esan zuen, Gasteizen diren belaunaldi berriek bulgariaraz ikas dezaten.

Zenbaki, urtaro eta aditz zenbait nola esaten diren bulgariaraz ere azaldu zuen, eta errespetuarekin batera, nork bere hizkuntzan hitz egiteko inportantzia azpimarratu zuen.

PULARREZ ETA EUSKARAZ

Haaly pular elkarteko Dienabou Bah Bah izan zen hurrengo hizlari. Ezkondua eta hiru seme-alabaren ama dela esanez ekin zion: "Etxean amaren hizkuntza hitz egiten dugu denok. Kalean, haurrek, euskaraz eta gaztelaniaz egiten dute", esan zuen irribarre txikia eginez.

Bere herrialde Ginea Konakryren berri eman zuen, geografiari dagokionez Ozeano Atlantikoaren ertzean kokatuz. Konakry hiria da hiriburu, kasik bi milioi biztanle dituela. Frantziar kolonia izana, eskolan pularrez ez baina frantsesez

ikasten dutela esan zuen Bah Bahk eta, aurretik Sabotinovek egin modura, pularrez kontatu zituen zenbakiak.

2013an sortu zuten elkarkea, eta euskaraz ere saiatzen ari dela dio, "seme-alabei lagundu nahi baitiet eskolatik ekartzen dituzten etxeko lanetan eta behar denetan. Eta gogo onez hartzen dugu parte *AnHitzak*-ek antolatzen dituen ekitaldi eta jaietan", adierazi zuen Dienabou Bah Bah-k.

WOLOFERA

Mbolo elkarteko partaide da Issa Sambe, eta, oroz lehen, woloferaz egin zuen mintzaldia. Entzuleak, arretarik handienaz izan zituen, nahiz hark esandakoetan ez zegoen ulertzerik 'Senegal', 'Euskal Herria', 'Vitoria-Gasteiz'... eta woloferan frantsesak egin duen presentzia besterik.

Sambe bera gurera 2009an etorria den arren, 2006koa da Gasteizko senegaldarren elkarkea. "Lehenengo bost lagunek fundatu zuten Mbolo. Oraingo egunean, berriz, 300 senegaldar ditugu Gasteizen erroldaturik, eta badakigu gehiago ere badirela, lan-kontratua lortua dutenek euren familiak ere ekarri baitituzte". Kopuru zehatzik emateko gai

“Kitxua gutxi gurean. Aitaren

hizkuntzak dira nagusi: urdua, punjabera eta, hein batean, ingelesa”

Isabel Sánchez, Ekuador

“Euskaraz ikasi nahi dut, seme-alabei laguntzeko eskolatik ekartzen dituzten etxeko lanetan”

Dienabou Bah Bah, Ginea Konakry



ez, baina 350 baino gehiago ere badirela esan zuen Sambek.

Senegal frantziar kolonia izana dela gogorazi zuen, 1960an independentzia lortutako herrialdea, 16 milioi biztanle dituen. Dienabouren Ginea Konakry, Boli Kosta, Mali eta Ozeano Atlantikoa ditu muga, eta lurraldearen barruan da Gambia. “Eta Senegaleko zenbait herri-tara joateko, nahitaezkoa da Ganbiatik barna igarotzea: herrialde bat da, Gambia, gure herrialdearen barnean!”. Frantziar kolonialismoaren herentzia, adierazi zuenez.

Herrialdean, woloferaz mintzo da populazioaren %40. Gainerako %60 hainbat etniak osatzen dute, zeinek bere hizkuntza duela. Senegalez gainera, Ginea Konakryn, Gambian, Boli Koston eta Malin ere hitz egiten da woloferaz. “Independentzia baino lehen, adibidez, herrialde bat bera ziren oraingo Senegal, Mali eta Gambia. Eta Senegal bera zen hiriburu”.

Gasteizen direla, wolof kultura indartu nahiko lukete, eta eskola ere ematen dute, hizkuntza eta kultura ondorengoei transmititzeko gogoz. “Gure etxean, woloferaz hitz egiten dugu gurasook, baina hurrek, aldiz, euskaraz ekiten diote ba-

tak besteari!”. Eurek ez dutela euskaraz ikasteko aski egokierarik izan esan zuen, “adintsu etorri baikinen”.

ISABEL SÁNCHEZ, LANDAZURI IKASTOLA

Landazuri Ikastolaren guraso elkartearen izenean hitz egin zuen azkenak, Isabel Sánchez. Ekuadorren jaioa, kitxua komunitateko kide da. “Hainbat hizkuntza hitz egiten dira gure herrialdean. Zonalde amazonikoan, adibidez, hamar komunitate ere badira, zein bere hizkuntzaren jabe. Mendietan, berriz, bost ere bai. Eta kostan ere bada barrietarik”, adierazi zuenez.

Isabel Sánchez bera, duela hamabost urte heldu zen Gasteiza. Gero, Pakistanen bizi izan zen lau urtez, Lleidan (Herrialde Katalanak) hurrena, eta Gasteizen da berriro. Landazuri Ikastolaren gurasoen izenean jarduteko zioak eman zituen: “Ikastola berezia da, 25 komunitate ere identifikatu ditugu, eta harro gaude dibertsitate horretaz. Harro eta pozik, ona delako denontzat”. Bada, haatik, harrotasuna eta poza besterik. “Gurasoak lanean ari gara, patio orduan bilduz eta aberastasun hori bizituz. Uste dut lehen ikastola garela bertako komunitateak bildu eta lanean jarri garena”. Urteko egutegia ere kaleratua dute, dibertsitate hori ikusarazteko, nahiz, oroz gain, baden kezka: transmisioa, alegia. “Gurean, beti galdera bera egiten dute gure umeek: ‘Nongoak gara gu, ordea?’”. Eta ez da debaldeko galdera, bata Pakistanen jaioa baitute eta hiru, aldiz, Gasteizen. Ikastolan ez ezik, etxean bertan bizi dute aniztasuna: “Eta hitz egin, kitxua gutxi gurean. Aitaren hizkuntzak dira nagusi: urdua, punjabera eta, hein batean, ingelesa. Alabaina,

gure umeak hemengoak dira, beste inongoak baino gehiago. Hala ere, beti izango dugu gure jaioterrietako hizkuntzez eta kulturaz hitz egiteko beharra, hala etxean nola ikastolan”. Hargatik ari dira lanean: “Gure ikastola eredu izan dadin nahi dugu”.

Lau hizkuntza, soziolinguistikaz ez ezik bizitzaz beteak, jatorrizko hitzunek lekukotasun zuzenak emanek. Lau hizkuntza bertatik bertara aditzeko egokiera. Lau hizlari, Gasteizko 50 hizkuntzen adibide. Hitz gutxi, hitz onak laurak egin zituztenak, komunitate bakoitzak bere hizkuntzaren alde egiten ari den lana erakutsi zuen bideo labur batez lagunduta; bideook ikusgai dira sarean ‘AnHitzak, Gasteizko hizkuntza aniztasuna’ sakatuz.

Zikloaren koordinatzaile Beñat Garaioaren oharra, azkenaz beste: “Diskurtsoak diskurtso, lauretan inork ere ez daki euskaraz. Izan ere, orain arte *Hitz Adina Mintzon* euskaraz egin duten atzerrian jaiotako herritarrak arnaseguneetan bizi dira, salbu eta Roberto Anawari, kukamera hiztuna, Basaurin bizi baita”.

Eta saioaren amaieran, txalo zaparradarik beroena jaso zutena laurak. ●

“Woloferaz hitz egiten dugu gurasook, baina hurrek euskaraz ekiten diote bata besteari!”

Issa Sambe, Senegal

“Errespetatu tokian tokiko kultura, eta irakatsi geurea, horixe dugu elkarbizitzaren oinarri eta funtsa”

Iliyan Sabotinov Alendarov, Bulgaria






**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Espiritu olinpikoa eta merkantilismoa

Atenas, 1896ko apirilaren 6a. Lehen Joko Olinpiko modernoak inauguratu zituzten. 241 atletek –guztiak gizonezkoak– parte hartu zuten 10 eguneko kirol ekitaldian. Lehen Joko modernoak arrakastatsuak izan ziren, ordurarte ez baitzen sekula halako nazioarteko parte-hartzerik izan eta handik aurrera, lau urtez behin, ekimena errepikatze-ko bidea ireki zuten, salbuespenak salbuespen: gerrak hirutan utziko zituen bertan behera jokoak, 1916an, 1940an eta 1944an, eta pandemiak atzeratu ditu 2020koak.

Urte batzuk lehenago, 1890ean, ekimenaren bultzatzaile nagusi Pierre de Coubertinek (1863-1937) bere kezka adierazi zuen kirol mundua arriskuan zegoelako: “Espiritu merkantilistak mehatxupear dauka kirola” ohartarazi zuen. “Irabazteko grina ohorearen anbizio hutsa ez den beste zerbaitekin elikatzen du maiz. Kirola gainbehera etor ez dadin eta berriro hil dadin nahi ez badugu, garbitu egin behar dugu”. Kirol espiritu garbi horrekin sortu zuen Naziorteko Olinpiar Batzordea 1894ko Parisko Kongresuan eta orduan erabaki zen Joko Olinpikoak antolatzea.

Logikoa zen jokoak Atenasen egitea, Antzinaroko jokoek hortxe baitzuten jatorria. Baina Grezian egoera ekonomiko kaskarra eta giro politiko nahasia zuten 1890eko hamarkadan. 1894an bertan, batzorde antolatzaileko Stephanos Skouloudisek zalantzan jarri zuen Grezia halako ekitaldi bat beregain hartzeko gai



LEHEN JOKO OLINPIKO MODERNOEN INAUGURAZIO EKITALDIA ATENASKO PANATHINAIKO ESTADIOAN, DUELA 125 URTE.

ote zen eta Coubertingo baroiak egin-dako aurrekontuak motz gelditu zirela adierazi zuen; Coubertinek jokoek milioi bat drakma inguruko kostua izango zutela aurreikusi zuen eta Skouloudisek kopurua hirukoiztu beharko zela ohartarazi zuen. Azkenean, 1896ko jokoek 3.740.000 drakmako kostua izan zuten.

Coubertinek berehala abiatu zuen olinpiar mugimenduari bizirik eusteko kanpaina eta Greziako Konstantino printzea (1868-1923) berekin lerratzea lortu zuen, batzorde antolatzaileko presidente izendatu ondoren. Eta haren esku utzi zuen finantzaketa arazoak konpontzea, diru kontuek urte batzuk lehenago aldarrikatutako kirol espiritu garbia zikinduko zutelakoan-edo. Zama

handiena krisi ekonomiko betean zeuden Greziako herritarrek hartu behar izan zuten: greziarrei egindako lehen deialdian 330.000 drakma bildu zituen printzeak, beste 400.000 zigilu postaletan, 200.000 gehiago laguntza txarteletan... George Averoff negozio gizonak ia milioi bat drakma eman zituen Panathinaiko estadioa berritzeko, kanpoaldean oraindik ikusgai dagoen estatua baten eta agerian ez dauden hainbat pribilegio eta mesederen truke.

Joko Olinpikoak neurrigabetasunaren eta ustelkeriaren adibide izango ziren maiz, handik aurrera, kirol industria erraldoiaren makineria merkantilistaren erakusleiho. Ero barbaro eta suntsitzaile haien gainetik. ●



Sumendi batek hustu zuen Berenize

K.a. 209 urte inguruan, Itsaso Gorriko merkataritza-portu nagusietakoa zen Berenize abandonatu zutela adierazten dute arrasto arkeologikoek, eta handik urte batzuetara berriro populatu zutela. Berriki, Marek Woźniak eta James A. Harrell geologoek ondorioztatu dute sumendi batek eraginda gertatu zela hori. Baina Berenize inguruan ez dago sumendirik.

Antiquity aldizkarian argitaratu dutenez, lehorte larriak eragin zuen Berenize hustutzea; lehortea, aldiz, bat-bateko klima aldaketak eragin zuen; eta klima aldaketa hura planetaren beste aldean gertatutako erupzio batek. Geologoek ez dakite zehazki zein sumendik egin zuen eztanda, baina lau hautagai nagusi identifikatu dituzte Mexikon, Martinikan eta Japonian. ●

ASTEKARIKO PORTADAK



ENEKO ARZUAGA

Lau hitz eta irudi bat sedukziorako

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Hori da portada batek lortu behar duena, lau hitz eta irudi batekin irakurlea seduzitzea. Aldizkaria erakargarri egitea. Erakusleho bat da, lehen begiratuan jasotzen duguna, barrukoari begiratu bat botatzera gonbidapena. Amua. Ba al dakigu, ordea, nola prestatzen duten zizarea kakoan?

“Azal bakoitza mimoz lantzen dugu ARGIAN. Saiatzen gara anitzak izaten gaien aukeraketan, eta sorpresa ematen irakurleari. Badago estilo bat jarraikortasuna ematen diona, baina aldi berean, ezberdinak dira lanak”, diote portadaren ardura dutenek.

Azken urteetako ARGIAren joeraren isla, talde lanean egiten dute lan hau ere; ardura bizpahirurena bada ere, ekipoa aukeratzen dira astero portadako gaiak. Nazioarte mailako aldizkari onenen kalitate bereko azalak egitea dute autoexigentzia eta irakurleari maila horretako aldizkaria eskaintzea. Irudi bakoitzari begiratzen diote angulu guztietatik, hitz bakoitza zorrozten dute ahal beste eta diseinuari ematen dizkiote behar adina buelta.

PORTADAK BANAN-BANA XEHATUZ

2020 eta 2021eko portadak aztertu dituzte erredakzioan. Irizpideak: zein diren gaiak, zenbat gizon / emakume portadan, lurraldetasuna, zuriak / ez-zuriak proportzioak, zenbat argazki eta zenbat ilustrazio...

Gaien aniztasuna azpimarratu da, barruan doan eduki anitzaren isla. Lantaldean positiboki baloratu da, historia indartsu bat dagoenean, iritzi publikoarentzat “ezagunak” ez diren aurpegiak portadara ekartzea.

Emakume eta gizonen presentzia oraindik orekatua ez bada ere (19 gizonek hartu dute portada, 13 emakumek, 7 kasutan biak agertu dira, eta pertsona transexual bat ere ikusi ahal izan dugu azalean), norabideari eutsi nahi diote: “Atzera begiratura alde nabaria da, nahiz eta lanean segi beharra dagoen”, azpimarratu dute.

Pertsona zuriak dira gehien ageri direnak: 37 zuri eta 8 ez-zuri. Horrek sortzen duen galdera da aldizkari gaitan nahikoa islatzen ote den Euskal Herriko errealitatea. “Hor badugu lana egiteko”, azaldu dute.

Lurraldetasunarena bada akaso ARGIAN nahiko barneratuta dagoen puntua, nahiz eta nabari den Hego Euskal Herrira tiratzeko joera. Ahalegintzen dira zazpi lurraldeak presentzia izaten gaitan bezala azalean.

Eta ilustrazioez eta argazkiez zer esan... Oso gustura daude irudiekin eta egileekin. Hemen ere aniztasuna eta ukitu pertsonala azpimarratu dituzte.

Lau hitz eta irudi bat. Nahi bada azkar egiteko modukoa. Ondoren gehitutako mimoek egiten dute berezi. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!



“Hedabide euskaldunak behar dituelako euskaldunon herriak, ikuspuntu kritiko eta sozial batetik. Komunikabide independenteen faltan gaude, egiak esaten dituenak, gustukoak izan ala ez, beraz arrazoi horiek guztiengatik animatu naiz ARGIA bultzatzera”

Bilboko Ekaitz

“Oso aldizkari interesagarria delako, eta ikasleekin lantzeko proposa ere bai”

Bilboko Marta

“Informazio iturri kristona iruditzen zait, oparoa, atzetik, aurretik eta alboetatik... kriston lana duena... eta webgunea erabiltze dudanez, bultzatu nahi dut ere...”

Gasteizko Ana

HURRENGO ASTEAN ALDIZKARIK EZ

ARGIAko kide estimatua, lantaldearen egutegian jai egunak gorri-gorri ageri dira hurrengo astean eta beraz, astebetzez ez duzu astekaririk jasoko. Hurrengo zenbakia 2728a da eta apirilaren 18ko data eramango du. Indarrak hartuta itzuliko gara!

UDABARRIN LUR GUZTIA ERNEMIN



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Zer usain du udaberriak? Galdera horri erantzuten saiatu da makina bat zientzialari eta poeta. Udaberria definitu behar horretarako. Jende gehienarentzat udaberriaren sarre-
ra egutegiak mugarrizten du. Aurten martxoaren 20a. Gutxi batzuek sarrera hori egun horretako zein ordutan gertatzen den begiratu dute, aurten martxoaren 20aren gure ordulariaren 10:37an. Urtero gertatzen da martxoaren 19 eta 21 artean. Ordu horren zergatia galdetuko du baten batek, eta jakingo du une horretantxe guk ikusten dugun eguzkiaren lurraren inguruko bira ekuatorearen parean dela. Ordutik atzera, gure ipar hemisferioan eguna gaua baino luzeagoa da. Horixe neurketa zientifikoa. Nik poetikoagoak maite ditut.

Zenbaitentzat udaberria hemen den arrastoak bestelakoak dira. Batzuk animaliei lotutako aztarnak dira ("udaberriak odola aldatzen du", dio esaerak): katua ohara jartzen denean ("otsaila, katuila") edo astoa iel ("maiatza, asto aro eta hosto aro"), edo zapelaitz bikoteek bere hegaldi-dantza zaratsuari ekiten diotenean.

Askok landareei begiratzen diete. Nire auzoko bat sahatsa (*Salix spp.*) loretan ikusi arte neguan bizi da. Beste batek harritza (*Quercus robur*) loretan ikusi arte ez du sinetsiko udaberria asentatu denik.



Maaltzaren (*Pyrus pyraeaster*)
loratze ezin zuriagoa.

Emakume pare bat entzun izan dut aro berria zerk ote dakarren elkarki zipoka: batentzat elorri beltzaren (*Prunus spinosa*) loraldi zuria zen, bestearentzat maaltzaren (*Pyrus pyraeaster*) loratze ezin zuriagoa ("udabarrian makatza, udagoienan mahatsa"). Sinesgogorrenek elorri zuria-
ren (*Crataegus spp.*) loraketa usaintsua-
ren urrin mozkorrak dirik gabe ez dute ne-
guko arropa baztertuko.

Koloreen zantzua nabarmena da gure paisaiaren udaberrietan. Izan ere zuhaitzen bat edo landareren bat hartzen ba-

dugu seinale, toki bakoitzean udaberri bana genuke. Eta, hori gutxi balitz bezala, landare bakoitzak bere udaberria lekarke. Adibidez, gure etxearen inguruan haritz batzuk hostoz erabat jantzita daude, baita loretan ere, dagoeneko, eta beste batzuek hosto puntta besterik ez dute ageri, oraindik, begi ireki berrietan.

Nik batek eta besteek osatzen duten multzoari eta haren gorabehera erreparatzen diet. Erreparatu sudurrarekin, eta ikusten dudari usaina hartu. Bai, udaberriak bere lurrin berezia du. Euria egiten duenean lurra askatzen duena bera; geosmina esaten zaio (grezierako "geo" lurra eta "osme" usaina). Batez ere bakterio batzuek sortzen dute, eta bere hedapenarekin lotuta dago. Usain horrek erakarriko ditu bera jan eta zabalduko dutenak. Iraupenaren usaina da, itxaropenaren usaina. Izerdi berriak piztuko ditu landare gehienek bizipozak eta gogoa. Neureak badoaz, izan ere uda hemen da...

Udaberriarekin ere poeta nagusi. Hala dio Ursula K. Le Guine: "Zientziak zorrotz deskribatzen du kanpotik, poesiak zorrotz deskribatzen du barrutik. Zientziak azaltzen du, poesiak berekin dakar. Biek deskribatutakoa ospatzen dute. Zientziaren lengoia eta poesiarena behar ditugu, ezjakina edo errua sendatzeko balio ez diguten datu pilaketa infinituetatik salbatzeko". ●

IRAKURLEAK GALDEZKA

Bidali zure galdera:
bizibaratzea@bizibaratzea.eus

✍ Axun Garmendiak bi galdera bidali ditu eta biak jarraian erantzungo ditugu tarte honetan.

Maiz irakurri izan dut ona dela baratzean errautsak botatzea. Garbiketa egin ondoren, sastrakak eta moztutako adarrak erre ditugu, baina ez da dena txoil erre eta egur ikatza gelditu da. Egur ikatz hori

lurrari nahastea ona da? Lurra oso buztintsua da.

Errautsenarekin arrazoi duzu, ona da lurrerako. Egur ikatza ahal baduzu birrindu edo ehotu. Lurrean hobeto nahasiko da eta lehenago usteldu.

Oilo batzuk ditugu, zazpi, eta egunero kentzen dugu oilo zirina. Zuzenean lurrera botatzen dugu, bai-

na ondo ari gera? Ala lehortzen utzi beharko genuke?

Askoz ere hobea litzateke laurtu edo konpostatu ondoren lurrari ematea. Horretarako ateratzen duzuen pila batean jarri. Zirin hutsa baldin bada tartean harrogarriren bat jarri: egur ezpaltxoak, adar birrinduak, lastoa... Ondo eginda dagoenean, orduan zabaldu lurrean. ●

MIRIAN OTXOTORENA, NNPEK-KO LEHENDAKARIA

“NOLAKO NAFARROA NAHI DUGUN AUKERATU BEHARRA DUGU, NITRATOSZ BETEA EDO EKOLOGIKOA”



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Otsailaz geroztik lehen-dakari berria du Nafarroako Nekazal Produktzio Ekologikoaren Kontseiluak: Mirian Otxotorena. Edorta Lezauni hartu dio lekukoa Lizarraldeko artzain eta gaztagileak, hain zuzen, kontseiluak 25 urte beteko dituenean Nafarroan trantsizio ekologikorako bidea jorratzen.

NNPEKren mende laurden honen zer balorazio egiten duzue?

Ekoizle eta hektarea oso gutxi-rekin hasi zen kontseilua bere garaian, eta ikusten dugu pixkanaka geroz eta ekoizle eta labore-lur gehiago batzen ari direla. Aldaketa hori positibotzat jotzen dugu, beste norabide batean doazen makrogranjen eta industrializazioaren aurrean gure bidea egiten eta tokia irabazten ari garela esan nahi duelako. 700 ekoizle inguru daude gaur egun zertifikatuak Nafarroan, baina egia da lurren %6,5 besterik ez direla oraindik ekoizpen ekologikokoak. 2030 urteari begira Europak ezarri duen %25eko helburutik oso urruti gaude oraindik. Beraz, urteotako balorazio positiboa egiten dugu, baina aurrera begira bultzadak handiagoa izan beharko du.



Eta nola emanen duzue bultzada hori?

Promozioa eta sentsibilizazioa egiten jarraitzea da asmoa, bai kontsumoari eta baita ekoizleei begira ere. Ekoizleak animatu beharra ditugu lurak eredu ekologikora pasatzera, trantsizio ekologikoa bultzatzeko. Nola egingen dugun hori? Bada, poliki-poliki pausoak emanez, eta noski, administrazioaren papera ere garrantzitsua izanen da horretan: bultzada eman beharra du, laguntza formakuntzan, ekonomikoki... Nolakoa Na-

farroa nahi dugun erabaki beharra dugu: nitratoz betea edo ekologikoa, bertako nekazaritza duena edo esportazioetan oinarritua. Eta kontziente izan eredu baten edo bestearen artean aukeratu beharra dagoela, ezin dira biak batera bultzatu.

Ekoizpen ekologikoa landa-garapenerako eta gazteak sektorerak erakartzeko aukera ona dela planteatu izan duzu. Zergatik?

Nafarroan geroz eta nekazari txiki gutxiago daude landa eremuan, produkzio handien eredu bultzatzen delako. Baina, aldi berean,

badira figura batzuk herri txikietan, despopulazioaren aurrean alternatiba bezala nekazaritza ekologikoa aukeratu dutenak. Eredu horretan, merkatuetara joanaz, salmenta zuzena eginez eta beste era batera ekoiztuz, uste dut badagoela jende gaztea prest sektorean sartzeko eta herrietan bizitzeko, eta badagoela alternatiba. Ekoizpen txikiarekin, bertako baliabideak eta komunak erabiliz, gure produktua transformatuz, eta gainera ekologikoan ekoiztuz, badago beste sektore batzuetara iristeko modua. ●



**Zure osasuna
zaintzeko garaia da.
Bertokoa eta ekologikoa
kontsumitzeko garaia da.**





**Euskadiko Elikagai
Ekologikoak**
Alimentos Ecológicos
de Euskadi

Apirilak 4, 2021 ARGIA

IKUSPUNTU JAIALDIA

EZ DIREN GAUZAK ERE BADIRA

Hilaren 15ean izan zen Ikuspuntu jaialdiaren hasiera-ekitaldia Iruñeko Baluarte Jauregian. Marina Lameioren *Dardara* filmak ireki zuen zinema astea, Berri Txarrak musika taldearen azken biran errodatutako lanak. Bata bestearen atzetik, hamaika film ikusteko parada izan da; jarraian, bertan eskainitako hainbat harribitxiren berri.

 AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO  CARLOTA CORTÉS ACHA

Ez diren gauzak ere badira” esaldiaz egin zuen jaialdiak aurtengo tesia. Iruñean urtero martxoa aldera antolatzen den ekimenak ez du dokumental klasikotzat ezagutzen ditugunen bilduma izan nahi; hortik urruti, ikuspuntu kokatua, proposamen esperimentalak eta fikzioarekiko mugen haustea bilatzen dira. Leloak proposatzen duen anbiguotasuna, beraz, ezin hobeto datorkio jaialdiari.

Hari horretan, Lameioren filma da aipatzen genuen ikuspuntu kokatuetako bat. Zuzendariak Berri Txarrak “Ikusi Arte Tour 2019” biran oinarritutako lana egin du, baina taldea zentroan jarri beharrean zaleengan fokua jarrita. Horrela, musikaren bitartez sortzen diren harremanak erretratatzeko ditu Lameioren, baita Berri Txarrak jarraitzaileen profil askotarikoak ere. Zuzendariak sentsibiltate handiz hartu ditu subjektibitate ezberdinak iruditzen, Alemaniatik hasi, Mexikotik igaro, Japoniatik itzuli eta Euskal Herrira begira.

Musikazaletasunaren ertz ezberdinak ukituz lortzen du filmak oso berea eta aldi berean orokorra ere izan daitekeen harremana jasotzea. Ohikoa eta zabala da, artearekiko filia berezia jostzen duen aldetik; berariazkoa, ordea, garai zehatz bati, inguru konkretu horri eta hainbatentzat horren garrantzitsua izan den taldeari buruz ari baita. *Dardara* aldendu egiten da *rockstar* erretratua



egitetik, protagonistak jainkotzetik edo haien arteko zurrumurru morbosoa azpimarratzetik. Horren orde, Lameiro lerratu egiten da hain ezagunak bilakatu diren musikariengandik *fan*setara. Mugimendu horrekin erdi-puntuko lana lortzen du, zeinetan dokumentalak eta musika-taldeak topo egiten duten. Jada ez da kontzertu bat, edo film bat. Bien arteko elkarrizketa horretan sortzen da espazio bat zeinetan aurretik taldearekiko emozio horiek bizi izan edo ez, ikusleak gai den ulertzeko filmatua den pertsonak sentitzen duena. Gero norberak lotuko du hori dituen bizipen propioekin; dela beste kontzertu batekin, arte-lan batekin, liburu batekin edo filmarekin berarekin. Beharbada, zuzendaria zale amorratua ez izateak laguntzen du ikusle oro errealtate horrekin lotzera, bere begiradarekin ikusiko bagenu bezala. Lameirok egindako ekarpen handia da, era berean, protagonisten heterogeneotasunarekin konektatzera garamatzan gonbita.

Jaialdiak euskal laburmetraientzat eskainitako "Paisaia" atalaren baitan, Lur Olaizolaren *Zerua blu*, María Elorza eta Koldo Almandozen *Quebrantos*, Peio Aguirrereren *Un retrato de N.B.* eta María Sánchezen *Agiña* eskaini dira. Nork bere moduan landuta, omenaldi bat egiteko lau saiakera dira, beste norbaiten bizira gerturatzea islatzen dutenak. Atal hone-tan erakusten duen bigarren lanean, Lur Olaizola Mamaddi Jaunarena ortzaiztar-rangana hurbiltzen da, zeina 1954ean New Yorkera joan zen itsasontziz, zazpi egun eta zazpi gaueko bidaian.


Zinemarekiko loturak abiatzen du Mamaddirekiko bidaiatzeko desira eta Olaizolaren filma egitekoa. Nolabait, hori dute biek amankomunean. Olaizolak Uztaritzeko artxiboan ezagutu zuen Mamaddiren testigantza, eta horrek eraman zuen gero filma egitera: garaian gaztea zen protagonistak film batean ikusi zituen Ameriketako Estatu Batuen inguruan eraikitzen ziren iruditegiak, tartean auto deskapotablea eta *zerua blu*. Paisaia horien atzetik bidaiatzeko grinak mugitu zuen Mamaddi itsasoz bestaldera promestutako munduaren bila, eta pixkaka errealtatearekin egin zuen topo, ezagutu ahala. Istorioa amonaren eta bilobaren artean kontatua da, belaunaldi batengandik bestearengana gauzak transmititzen diren erara, sotilki; bizi esperientziak horrela jasoak baitira. Filma da, hain zuzen ere, istorio bat jasotzeko modua, eta horrela jartzen dira harremanetan memoria, artxiboa, erregistroa eta etorkizuna. Iraganerako bidaiak norbere ametsen

arintasunaz pentsatzera eraman gaitzake.

Sail ofizialean eskaini da, beste behin ere, Jorge Moneo Quintanaren *In Ictu Oculi* (Begiak hesteko artean) lan dokumentala. Ikuslegoaren saria jaso du filmak, gainera. Aurretik *Orbainak* erakutsi ondoren, horrekiko nolabaiteko lotura egiten du labor honek, aurrerapenaren eta denboraren igarotzeari dagokionez. Kasu honetan, artxiboko irudietan murgiltzen da zuzendaria, historian zehar altxatutako eraikuntza enblematikoen garapen eta eraisteak elkarren ondoan jarri eta esanahi berriak sortzeko. Atzean utzitako pausoen arintasunaz eta horrek duen pisuaz eginiko hausnarketa da.

II. Mundu Gerran, judu jazarria izanik idatzi zituen Walter Benjaminek historiaren inguruko tesiak. Bertan, historia idaztearen ilunak agerian jarri zituen, hau da, garaileek idatzitako bertsioaren zapalkuntzak. Bere ustetan, ez omen zegoen garaipen ikurrik era berean herio-ikur ez zenik, eta ezin ahanztz zitekeen idazketa unea gertakarien osteko irakurketa zenik. Era horretan eragin du askotan arte garaikideak: mundu modernoaren haus-turaren zain egon eta bere pitzaduren zirrikituetatik idazten. Moneoren filmak gelditu diren arrastoei egiten du lan, dituen irudien zaharkitzearekin jolastuta. Garaiko erregistro diren argazkien hondatzearekin desagertuz doa aro bati dagozkion monumentaltasuna, era berean, egungo mundu proiektuaren aurrekari ere badena. Posmodernitatean bezala, gelditzen diren errautsekin osatua da filma. Begiak hesteko tarte horrek ematen dio aukera gure aurrean igarotzen ari denari gertatzeko, guk bertan dugun partaidetzaren ardura sentitzeko ia astirik gabe. Zinemaren beraren trikimailua da hori, begiak hesteko tartean pasatzen diren fotogramen osotasuna, mugimendu bezala interpretatzen duguna, ia ohartu gabe. Soinuaren erritmoak geldiezin den mundu mailako obraren panoramikan sartzen gaitu, bertatik nola irteten jakitera iritsi gabe.

Ikuspuntu jaialdia izan zen iaz modu presentzialean ikusteko aukera izan genuen azken zinema jaialdia. Pandemia-egoera etorri zen gero, jaialdi batzuk bertan behera utzi behar izan zituzten, batzuk online eskaini dira, eta aforo mugatuarekin gauzatu dira besteak. Efemeri-de ezberdinek gurutzatu dituzte aretoak egunotan, barnetik eta kanpotik, badiren eta ez diren gauzen artean igerian. Dokumentatzeko modu anitzak baitaude. ●



Sonata bat Tripak kolektiboak orain gutxi argitara ekarri duen lanaren izena da. Antzokietako taula eta fokoak une batez alde batera utzita, Arabako Badaia mendilerroan dagoen Santa Katalina lorategi botanikoa izan da obraren agertokia. Bertako landaredi askotarikoa, komentu zaharreko hondakinak, Zadorra ibaiko ur gardenak eta zeru irekia aukeratu dituzte lantzen ari diren azken piezaren materialak eta ideiak bertan probatzeko. *Tripak: Sonata bat*, bideo-formatuan aurkeztu duten lana da, Ander Sagastiberri artistaren sinadura darama eta Zapi Zuria proiektuaren webgunean dago ikusgai.

TRIPAK ATARA

 JONE ALAITZ URIARTE IRIARTE  TRIPAK KOLEKTIBOA

Tripak Kolektiboa antzerki konpainia da, Gasteizen du bere kanpamentu nagusia, eta egun bost emakumezko osatzen duten proiektua da: Marina Suárez, Natalia Suárez, Andrea Berbois, Maite Mugerza eta Mayi Martiarenak. Konpainiak 2013. urtean hasi zuen ibilbidea Gasteizko Baratz Aretoko antzerki laboretan eta ordutik hiru dira publiko aurrean aurkeztu dituzten lanak: *Maite* (2013), *Aitaren larrua* (2015) eta *Urruna* (2019). Beren lana euskal antzoki sarean luzaz erakutsi bada ere, zirkuitu artistikoetan ere izan du isla. Izan ere, konpainiaren sortze-prozesuak eta erreferentziak arte plastiko eta bisualek zeharkatuak daude. Halaber, konpainiako kideek Arte-Ederretako fakultatean ezagutu zuten elkar eta badute beren ibilbide propioa artista gisa.

Sortze-prozesu luzeak izaten dituzte, saiakera, bazterkin eta deriba ugarirekin. Obrek abiapuntu ezberdinak izan ditzakete –argazki bat, asmatutako leku ezinezko bat edota gidoi bat–, eta handik aurrera hainbat eta hainbat forma hartuz doa obra, itxuraldatuz, adierazpen ezberdinak arakatuz, lengoia baten eta bestearen arteko mugak tenkatuz. Eszenatokitratzen dituzten objektuekin ere

harreman bereziak sortzen dituzte Tripakekoek, eta askotan objektuek taula gainean dauden protagonistak dirudite. Sortze-prozesu horietan, sarri, inguruko lagun eta artistekin kolaborazioak egiten dituzte, izan musikari, izan artista, aberasgarriak suertatzen diren lan-ildoei ekinez.

Egun *Platea* lana prestatzen dabilta buru-belarri. Lan-prozesu horretan, egonaldi ezberdinak egin dituzte Bilboko Bulegoa z/b espazioan, Arabako Azala Krea-zio Espazioan eta martxoan Sardiniako S'ALA-n egonaldia egin dute azken lan horri forma ematen jarraitzeko. Noizean behin, sortze-prozesuan sartzeko aukera ematen digute, pasa den urteko urrian Eremuak jardunaldietan egin zuten aurkezpenean, kasu. *Work in progress* horretan, Donostiako Tabakalerara gerturatu ginenok *Platea* obraren nondik-norakoak ezagutzeko aukera izan genuen. Eta emanaldi hura, oraindik bukatuta ez dagoen saiakera hura ikusteak, esango nuke ez zuela inor axolagabe utzi.

Platean, zetazko mahai-azpi urdinkadun mahai baten bueltan, lau protagonistak bankete oparoa izandakoaren aldirietan ageri dira, zorioneko une baten azken apurrak dastatzen eta azken tantak edaten, dantzari, igurtzen,



ekilibrio ezegonkor batean borrokan. Dekadentzia somatzen da atmosferan, egunsentira heltzen ari den festaren azken zipriztinak bailiran, hasierako elegantzia eta neurritasuna aspaldi galdu den ordu txiki horietan gertatzen den bezala. Zilarrezkoak izan litezkeen baina metal itxura duten erretiluak, ontziak eta kopak, haien arteko talkak eta isuriak dekadentzia sentsazio hori areagotu besterik ez dute egiten. Obra osoa mahaiaren inguru horretan gartzzen da, erritmo pausatuan, melankolia puntu batekin. Laukoteak sortzen duen irudiak sarri, *tableau vivant* baten itxura hartzen du: itzela da sortarazten duten garaiko iruditegi piktorikoa.

Sonata bat bideoan, aipatu berri dugun eszena aire irekira eramaten dute, piezaren dimentsioa hedatuz. Tripa-kekoek hiru egun pasa zituzten Santa Katalinako lorategian bideo-pieza hori grabatzen, eszena bakoitza lokalizazio ezberdin batean interpretatuz. Natura,

arkitektura eta memoria batzen diren kokapen horretan laukotearen presentziak, haien gorputzek eta imintzioek, paisaia eragin egiten dute, bertako eszenatoki naturalean ezohiko elementu gisa txertatzen dira. Nesken keinu eta mugimenduek, harri jaurtiketek eta zaratek, durundiak eta burrunbak sortzen dituzte lautadan barrena. Lekuak berak balio erantsia ematen dio piezari; izan ere, aukeratutako lokalizazioa ezin liteke ederragoa izan: Badaiaiko mendilerroaren magalean dagoen XIII. mendeko dorretxe eta komentu agustindar izandakoaren hondarrak, gaur Santa Katalina lorategi botanikoa izenez eza gutzen dena.

Kokaleku horretan, erraz antzemango dugu zeta urdinezko mahaia, baita aurreko obran ikusiak genituen erretilu eta kopak ere. Eta etengabe eta neurririk gabe irensten dituzten oskoldun jaki horiek. Bereziki dira politak ibaian grabatutako eszenak, lau protagonis-

tak, horietako bat biolinaz, ur garde-netan agertzen direnean, parpailadun arrokekin igerian, edateari utzi gabe, flotatzen, kantuan. Ez dakigu zehazki sirenak ote diren, baina beren kopekin topa egiten jarraitzen dute, ospatzen duten horren zergatia zein den jakin ez dakigun arren. Ilargiak zeru iluna argitzen du, banketea bere azkenetan dago, festa baten apurrak besterik ez dira geratzen. Dagoeneko kandelak itzalita daude.

Tripak: Sonata bat Bilboko Bulegoa z/b espazioan egin zuten egonaldi artistikoaren testuinguruan sortutako bideoa da. Oraindik denbora falta da obra antzokietan ikusi ahal izateko, baina bien bitartean bideo honek antzezlan bat ikusteko beste formatu bat eskaintzen digu, antzerkia imajinatzeke dimentsio berria dakarkigu, hala nola, prozesua ikusarazteko aukera ere. Zapi-zuria.org webgune interaktiboan dago ikusgai esku-hartze artistikoa. ●





LIBURUA

Kritikaren komunitateaz



DANI BLANCO

BABEL AURRETIK

EGILEA: JOSEBA GABILONDO
ITZULTZAILEA: AMAIA
APALAUZA OLLO

TXALAPARTA, 2020

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Bi ekarpen egin zaizkit bereziki zirrargarriak Joseba Gabilondoren azken liburuan. Izan ere, iruditut zait egungo eztabaida kritikoei aurre egiten lagun dezaketela.

Bata. *Babel aurretik*-ek ahalbidetzen du euskararen diglosia pentsatzea modernitate goiztiarreko berrantolatze kapitalistaren baitan. Hortaz, Silvia Federicik feminismotik eta Cedric Robinsonek arrazaren teoria kritikotik egin antzera jarduten du. Hau da, Marxen *Kapitala* euskal kokagunetik eguneratzen hasia egiten du posible. Gatazkak eta matxinadak txirikordatzeari ekin nahi diogun honetan, hortik tira egitea izan daiteke klabeetako bat.


Bestea. *Materia Vasconica* kontzeptuak Edward Said pentsalari pales-

tinaren estatubatuarraren *Orientalismo* terminoaren eran funtzionatzen du, baina gurera ekarrita. Hau da, euskal diferentziari buruzko diskurtso multzoari erantzuten dio kontzeptuak. Jatorri, imperialismo, fede, modernitate, etnizismo eta exotismoek, denek ala denek era soinubakar zein kakofonoetan osatu dute *gu*-aren esangura gatazkatua. Gabilondok *Materia Vasconica* birpentsatzea proposatzen digu.

Liburuan noski, beste ideia interesgarri asko daude. Adibidez, autoreak postnazionalismoaz dihardu baita *Babel aurretik*-en ere. 90eko hamarkadatik hona lantzen aritu den kontzeptua izanik, jadanik aski eztabaidatuta egon beharko lukeela iruditut zait eta ez da hala izan. Pixka bat historizatzeak merezi du.

80ko hamarkadaren bukaeran eta 90eko hamarkadan zehar lan fundatzaileak argitaratu zituzten literatur kritikarien belaunaldiaren parte da Gabilondo. Belaunaldikideek lanak batez ere gazteleraz argitaratu zituzten; Gabilondok, batez ere, ingelesez. Belaunaldikideek Euskal Herriko Unibertsitateko botereguneak hartu zituzten; Gabilondok berriz, 2006ra arte itxaron behar izan zuen lana euskarara itzulita argitaratzeko. Kokagune estrategikoa beste bat zen: AEBetako akademia.

Posible da oker egotea, baina elkarrekin gutxi eraiki zuen belaunaldia iruditzen zait hura. Izango ote gara gai behingoz eztabaida kritikorako komunitatea sortzeko. ●



MUSIKA

ENERITZ FURYAK

Unibertsoa loreetan emana



ENERITZ FURYAK UTZIA

XALBA RAMIREZ

Eneitz Furyak irundarra ez da belarri errazentzako artista izan inoiz. Izateko asmorik ere ez ziurrenik. Bere ahoskera eta harrabotsa franko-tiratzaile gisa erabiltzen zuen lehen, orain margolari moduan darabil eta gai da unibertso berri bat oparitzeko. Neurtu ditu disonantziak eta naretasun erabatekorik gabe josi du disko geldo eta eder-ederra.

“Fabrikazio sistematik at” dago –eta egongo da– Furyak-en *Emadan*, 2021ean autoekoiztua eta autograba-tua. Hemen ez duzu topatuko euskal merkatu txiki horretan hegemoniatxoa bilatuko duen undergroundez edo bazterrekoaz moztortzen den artistarik. Autentikotasun sena bere-berea du Furyakek, ezarritakoaren aurrean *lud-dita* baten antzera: erre azken pieza!

Gitarra da oinarri, baina sintetizagailuekin panorama kosmiko zabalak

koloreztatzen ditu. Izkander Fernandezek eder esan bezala, azalean dauden lore horiek izan daitezke bere musika, ilunaren baitan gehituz kolorea.

Errepikapena da nagusi diskoan, bakarrik konposatzean *looperrak* erraztu duelakoan akaso, eta kapak gehituz eraiki dira kantak. Une batean ordea, gantxo gisa funtzionatzen duten ihesaldiak ere baditugu, arreta berreskuratu eta kantari lotzeko, *Beltzaile* kantan errepikatzen den “i” horren gisan, jostailuzko sintetizagailu batekin bueltaka. Furyak, orain bezala lehen, asko jolastu du ahotsarekin eta soinuekin, eta orain une dibertigarriak eskaintzen ditu.

Maria Arnal eta Marcel Bagés-ek kaleratu berri duten *Clamor* diskoarekin batera entzuten ari naiz *Emadan*. A posteriori egindako entzunaldi gurutatu honek bi lanen arteko konexioak



EMADAN

ENERITZ FURYAK

AUTOEKOIZPENA, 2021

errazten ditu eta oihartzun egiten du Furyak-ek meteoritoetan, gizaki ez diren izakien arteko harremanetan, munduaren amaieran, eta munduaren hasiera berri batean. Donna Harawayren cyborgak eta Björk-en irudiak imajinatze gaitasunak bat egiten dute.

Mundu osoaren historia une bakar batean joan daiteke. Neguko gau bat, pianorik gabe, eraginkorra den droga-ren bat. Arnasa bat. Hutsune bat. Istanteen aldarrikapena dago *Emadan*-en eta lasaitasunerako gonbidapena. “Iraungiko haiz, sua bezala baina sua haiz, aspaldi ez bezala”.

Hauskortasuna eta ausardia batzen diren puntua da *Emadan*. Disko txiki batean unibertsoa kondentsatzeko gai. Gizaki adina izaki sartuko diren lore eta kolore sorta. Ez du errekorrik egingo ez Spotify-n eta ez Youtuben, baina marka utziko du zapaltzen duen lurrean. ●



Una de Zetak?

 MARTA SENDIU ZULAIKA  EIDER ITURRIAGA

Gailu elektronikoen bidez sortzen den musika motari deitzen diogu elektronika, baina definizio hau ez da nahikoa, izan ere, gaur egun egiten den musika oro igarotzen da elementu edo instrumentu elektronikoko batetik. DJ-aren lana ordenagailu bati klik egitea dela diote *hater*-ek, aldiz, pertzepzio hori aldatu nahi dutenek musikaren atzean dagoen alde gizatiarra azpimarratzen dute.

Gustatu ala ez, musika elektronikoa Euskal Herrira heldu da, eta Zetak taldea da horren erakusgarri. *Millennial* edo *Y belaunaldi* bezala izendatu diren gazteen musika estilotzat definitu da. Gazteak (eta ez hain gazteak) olatu berri honetara igo dira, eta ez da kasualitatea, doinu errepikakorrek, egitura solidoek eta elektronikaren melodiak emozioak eta euforia egoera sortzen dituen dopa-

mina askatzen laguntzen baitute, besteak beste.

Arbizutik datorren Peio Reparazen proposamen berri honek lekua egin du gazteentzako euskal musika ren eszenan. Proiektu berritzaile eta eguneratu honek euskal identitatearen berrinterpretazioa eskaintzen digu eta horretarako hainbat erreferentzia garatu ditu nafarrak. Horren erakusgarri da erabilitako tipografia. Zetaken identitate bisuala euskal tipografia tradizionalean oinarrituta dago eta letrak euskal alfabetotik berreskuratutak eta eguneratuak izan dira.

Duela urtebete luze argitara atera zen *Errepidean* abestiarekin eman zioten hasiera, eta haren atzetik *Pater Noster*, *Nirekin topatu naiz*, *Zuziri bi...* atera ziren. Harrera paregabea izan zuen proiektuak hasieratik eta gaur egun olatuaren gandorrean jarraitzen dute *Zeinen ederra*

ZETAK

NOIZ: otsailak 26.

NON: Gasteizko Kubik aretoa.

izango den disko berriarekin. Agerikoa da nerabeen artean duen arrakasta, Gasteizko Kubik aretoan *sold out* egin du eta ikusmina gailentzen da giroan.



Euskal identitate kulturala garatzen duen lan honek folklorea, tradizioa eta euskal historia ezagutzeko aukera ematen du. Urbasa, Larrun, Laboa, Sakana, arranoa eta antzeko erreferentzien zertzeladak uzten ditu Reparazek abestietan. Hala ere, ozenki eta kemenez abesten duten nerabeek jakingo dute nor zen Mikel Laboa?

Kanten artean isiltasuna nagusitzen da entzuleen zurrumurrua agerian utziz. Gaztelania da nagusi zurrumurruan, hurrengo kantaren hasierara arte gailenduko den hizkuntza. Hurrengo kantaren lehenengo dunbalarekin berriz ere euskara. Laboa nor den jakin ala ez, argi dago garaipen txiki bat lortu dela. ●



Puzzlea

KOKA EZAZU PIEZA BAKOITZA DAGOKION TOKIAN ETA XABIER OLARRA ITZULTZAILEAK ESANDAKO ESALDI BAT IRAKURRIKO DUZU.



Sudokuak

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		6	1	7	3			
	4		9			1	6	
		7	5		6		2	
4	7					1	9	
1	6		3	9	7		4	2
5	9						3	8
	2		8		5	3		
	3	1			4		5	
			6	3	9	2		

ERRAZA


			9		3			5
5				6				3
		4		5	1	6		
4						5	7	
			4		6			
	9	2						4
		5		8		2		6
2				1				7
6			2		7			

ZAILA

5x5

ZE HARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Enbor sendo. 2. Letxuga.
3. Ur lohitsu.
4. Beldurtu, ikaratu. 5. Horia



Hizki berak

OSA ITZAZU HITZAK FALTA DIRENAK HIZKI BERAK DIRELA KONTUAN IZANIK, HORI BAI, HURRENKERA EZ DA ZERTAN BERA IZAN.

1				U	T	S	I	K
2	S				E	K	O	A
3	L	A				T	S	U
4	S	I	N				M	O
5	K	L	A	R				A
6	E	S	K	A	R			

EBAZPENAK

2	8	6	1	7	3	4	9	5
3	4	5	9	8	2	1	6	7
4	7	3	2	5	8	6	1	9
5	9	1	7	5	4	6	3	8
6	2	8	3	6	9	7	4	5
7	5	4	6	3	9	2	8	1
8	3	1	7	2	4	5	8	6
9	6	2	5	8	1	9	7	4
10	4	7	3	2	5	8	6	1

ERRAZA

ZAILA

PUZLEA: "GURE ETXEAN LIBURU GUTXI ZEGOEN ESKOLAKOEZ GAIN, BAINA GURE AITONA OSO IPUINZALEA ZEN ETA BURUZ ZEKIZKIEN ESOPOREN ALEGIAK ERREZITAZEN ZIKKIGUN."

5XS: 1. SUBIL, 2. URRAZ, 3. BASUR, 4. IZUTU, 5. LARUA.

HIZKI BERAK: 1-OINUTSIA, 2-SOINEKOA, 3-LAINOTSU, 4-SINONIMO, 5-KLARIONA, 6-ESKARNIO.

Sara Etxebeste Alvarez

KONMARI ADITUA



BURUA ETA BIHOTZA

“Asko atsegin ditut film japoniarrak eta aukera dagoenean bertsio originalean ikusten ditut. Audioari jaramon eginez, baina deus ere harrapatu gabe; eskerrak azpitolueil Bazen hala ere hitz bat, behin eta berriz entzuten nuena, “kokoro”. Ez nekien ordea zer esan nahi zuen. Bila hasi eta japonieraz “kokoro”-k “bihotza” esan nahi du. Egia da hitz askok esanahi bat baino gehiago dutela japonieraz, eta honek burua, arima eta bihotza batzen ditu. Beraz, esango nuke zerbaitetan ari-tzea dela, bihotza eta burua bertan jarritz”. Kokoro Tailerrean (www.kokorotailerra.com) aritzen da, buru eta bihotz.

“KonMari metodoak gauzei ekonomikoa ez den balioa ematea eskaintzen du”

Arte Ederrak ikasi zituen Sara Etxebeste Alvarezek (1986, Orereta), margotzen eta marrazten trebatzeko ilusioz. Bere ametsak zapuzturik ikusi zituen ordea, hezkuntza ereduarengatik. Ona eta txarra, gaizki eta ongi... ez du horrekin bat egiten. Txukuntzea jolasa izan da beretzat betidanik, eta hori bera arte bilakatu du Kokoro Tailerrari esker. Marie Kondo japoniarraren antolaketa metodologia Euskal Herriratu du.

AITZIBER ZAPIRAIN IRANTZU PASTOR

Zer da KonMari metodoa?

Oso modu azkarrean azalduta, etxea ordenatzeko metodoa da. Baina nire iritziz, askoz ere gehiago da. Iraultza ere izan daiteke. Norberak bere etxea ordenatzen duenean, altzariak, liburuak, ispiluak, arropa... kokatzen ari garenean, hein batean gure barrena ordenatzen ere ari gara. Kokatzen. Oharkabea bada ere, baina hala da.

Zertan oinarritzen da Marie Kondoren proposamena?

Oso estruktura garbia planteatzen du, malgua izan arren. Guk, ohituraz, gelaka atondu eta ordenatzen dugu etxea. Mariek, ordea, kategoriak proposatzen ditu. Batetik arropa, bestetik liburuak, azkenik dokumentuak. Hiru talde horietan sartzen ez denari “komono” deitzen dio. Hor sar ditza-kegu sukaldeko tresneria, komuneko produktuak, dirua, mugikorrak... Azken kategoria objektu sentimentala da.

Proposatzen duen beste aldaketa bat, eta agian zailena, zoriontsu egiten gaituena biltzea, sailkatzea eta

identifikatzea da. Hemen dago gakoa nire iritziz: zer da benetan zoriontsu egiten gaituena? Ez daukagu halakoak gure buruari galdetzeko ohiturarik. Izan ere, sarri, asko ordaindu dugun jertse, mugikor edo lanpara bati berebiziko garrantzia ematen diogu, ez atsegin dugulako, asko ordaindu dugulako baizik. Aldiz, aspaldiko niki zuri batek zoriontsu egin gaitzake, jada jantzi ez arren. Objektu batek, zaharra izanik ere, gure tokian sentiaraz gaitzake. KonMari metodoak begirada zabaltzea eskaintzen digu, gauzei ekonomiatik edo kostutik haragoko balioa ematea.

Nola ezagutu zenuen KonMari metodoa?

Aldaketa beharra sumatzen nuen garai batean heldu zen. Une hartan esku artean nuena albo batera uzteko erabakia hartua nuen jada. Italiara joan nintzen, eta handik bueltan, “Sara, liburu hau zuretzat egina dago”, esan zidan lagun batek. Egia esan, interes askorik gabe hasi nintzen irakurtzen, baina berehala harrapatu ninduen.



"Prozesuak ez du esan nahi guztia botatzea, daukagunaz jabetzea baizik".

Barne mailako iraultza txikia sentitu nuen. Lehendik egin nuen Hezkuntza Sortzaileko formakuntza bati esker eta irakurketa honekin, betidanik nuen jolas batek forma berria hartu zuen. Txikitatik etxeko trasteak ordenatzea, arropak eta liburuak koloreka edo beste hainbat erata ordenatzea jolasa baitzen niretzako.

Noiz erabaki zenuen horretan aritu nahi zenuela?

Liburua irakurri bezain laster erabaki nuen honetan formatzea. Egia da ordenatzea beti atsegin izan dudala. Nire pasioa edo fantasia izan da horretan lan egitea. Baina jolas moduan ulertzen nuen beti eta ez nuen nire jolasa zapuztu nahi, edozein lanetan edozer ordenatzen aritzea-gatik.

Nola egin zenuen formakuntza?

Erabakia hartu nuenean, Ameriketako Estatu Batuetan soilik ematen zituzten formakuntzak. Hala ere, haiei idaztea erabaki nuen, Europara etortzeko asmorik ote zuten jakiteko, eta baietz esan zidaten. Urtebete itxaron nuen, eta hiru eguneko formakuntza jaso nuen Londresen.

Aurretik norberak bere prozesua egitea eta Marie Kondoren bi liburuak irakurrita ukaitea eskatzen dute. Beraz, horretarako denbora ere izan nuen. Formakuntza egin eta gero bi pertsonekin praktikak egin eta ondoren azterketa bat pasa behar da. Niretzako, sekulako umiltasun dosia izan zen prozesu hura.

Hori dena barneratu ostean eta nire buruaren alde apustu egitea erabaki nuenean, beldur guztiak gainditurik, indarrak batu eta aurrera egitea erabaki nuen. Orduan sortu nuen Kokoro tailerra.

Zeintzuk dira prozesuaren urratsak?

Lehenik elkarrizketa egiten dut prozesua egin nahi duen pertsonarekin. Elkar ezagutzeko eta bere beharrak eta nahiak ezagutzeko. Lan praktikoa hasi aurretik hainbat ariketa proposatzen dizkiot, espazio pertsonalaren eta desio duen bizitzaren inguruan hausnartzeko. Ariketa horiek ordena-prozesuaren ikuspegi zabalagoa izaten eta ondoren lana arinago egiten laguntzen dute.

Hori eginda, kategoriaz kategoriaz etxeko alor guztiak ordenatzen ditugu elkarrekin. Arropatik hasita, guztia atera,

berrikusi, zoriontasunaren arabera aukeratu eta berrantolatzen dugu.

Zenbateraino eragiten du?

Prozesua nirekin egin nahi duen pertsonaren espazio propioa lantzen dugu bereziki, etxe horretan bere bikotekidea, gurasoak edo haurrak bizi arren. Partekatzen dituzten objektu edo espazioak nola kudeatuko dituzten erabakitze adostasunetara iristen laguntzen diet.

Nire lana pertsona hori bidean laguntzea da, zer gelditzen den eta zer ez bere esku dago. Epairik gabeko gune babes-tuak sortzea ezinbestekoa iruditzen zait, lasaitasun horretatik bakarrik izan zaitzezkeelako benetan zu zeu.

Jendea gustura geratzen da?

Harrigarria da jendeak nola erreakzionatzen duen. Askori barrenak askatzen laguntzen die, korapiloak desegiten, barne oreka topatzen... Prozesuak ez du esan nahi dena botatzea, daukagunaz jabetzea baizik. Eta daukagun gauzen artean zorriona topatzea ere. Nola tolestu eta nola jaso erakusten dut bai, baina hori baino askoz gehiago da mugitzen dena. ●



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS

Aste Santuan soilik apaizek, mojek eta Jonan Fernandezek bidaiatu ahal izango dute



Jonan eta bere lagunak Arantzazuko basoetan, lan gogorraren ostean, oxigenatzen.

LABIK ateratako azken gida-lerroetan jasoa dagoenez, apirilaren 1etik 5era apaizek eta mojek soilik bidaiatuko ahal izango dute erkidego batetik bestera. Baita Jonan Fernandez fede-gizonak ere, azken urteotan izan dituen 38 lanpostu publikoetan bildu eta soberan geratu zaion ogia eman diezaaien gosez diren pertsona guztiei. Gainerakoak, haus-

narketa-prozesu erlijioso batek eskatzen duen moduan, etxean sartuta pasa beharko dituzte bost egun, ahalik eta umiltasun handienez Josukristoren nekaldia eta piztuera ospatzeko. Beranduegi adierazi digutenez, honezkero hiru bat herritan ikusi dituzte apaiz multzoak footing egiten ume eta nerabeen eskolen bueltan. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Messi, bietan jarrai



Serbitzua barrik



2027an Antartikoko izotz gaineko maratoia eta Saharako gamelu lasterketa hartuko ditu Bilbok



“Bilbo mapan kokatzea eta ostalariak laguntzea da gure lehentasuna”, adierazi du Juan Mari Abortu alkateak, “eta horretarako guztiz beharrezkoa da 2027an hemen egitea Antartikoko izotz gaineko maratoia eta Saharako gamelu lasterketa”. Urtero-urtero 17 milioi ikusle biltzen dituzte bi txapelketa horiek, eta Bilboko Udalak egindako kalkuluen arabera, 170 milioi euroko inpaktu ekonomikoa eragin-

go dute hirian. “Diru horrekin petankan aritzeko makro-zelai bat eraikiko dugu hiri erdian, eta hara iristeko autopista bat, autobia bat, errepide bat, zubi bat, metroko linea berri bat eta AHTko geltokiarekiko lotune intermodala. Finean, herritarrak aspalditik eskatzen ari direna. Eta ziur diru apur bat sobratuko zaigula Gurutze-tako ospitalean litxarrerria makina berria jartzeko. Denok irabaziko dugu”. ●

Artikulu hauek erositako
ekarpen ekonomikoa
egingo diozu

**Bilboko Mbolo Moye
Doole** elkarteari.

Atera aldarria kalera
euskaraz eta wolofez!

24€



Eskaerak egiteko:

943 37 15 45
argia.eus/azoka

2. argitaraldia

Bizitzaren ederra loratu dadila

Jakoba Errekondo

Loreak etxeko poza dira. Zaintzen asmatzeko beharrezkoena, lore bakoitza ezagutzea da. Liburu honek hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu: zein landare aukeratu txoko bakoitzerako, gaixotasunei nola aurre egin, ureztaketa, ongari naturalak nola egin eta nola birlandatu.



25€

Orri kop.: 248

BIZI BARATZEA

ARGIA

EROSTEKO: argia.eus/azoka 943 37 15 45

